

# **ANIZTASUNARI ERANTZUTEN PLANA**

## **2014-15 ikasturtea**

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



## AURKIBIDEA

Orrialdea

### I. BLOKEA. ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN PRINTZIOAK

0. SARRERA .....	1
1.- ANIZTASUNARI ERANTZUNA LEGEAN .....	1
2.- ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN ESANAHIA .....	2
3.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN PRINTZIO OROKORRAK .....	2
4.- ANIZTASUNARI ERANTZUNA ETA IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTUAK .....	4
5.- ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN NEURRIEN XEDEA ETA HELBURUAK .....	5

### II. BLOKEA. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA (AEP) DISEINATZEKO PROZESUA

6.- DOLORES IBARRURI BHIko IKASLEEN ANIZTASUNAREN ERAGILEAK .....	6
7.- IKASLEEN DIAGNOSTIKOA EGITEKO PROZESUA .....	6
8.- PLANAREN GARAPENA .....	7
9.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO GIZA-BALIABIDEAK .....	9

### III. BLOKEA. 2014-2015 AEP-REN ZEHAZTAPENA

10.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK .....	10
10.1.- OHIKO NEURRI OROKORRAK .....	10
10.1.1.- IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA (ICP) .....	10
10.1.2.- ORDU KREDITUA .....	12
10.1.3.- PATIOAK .....	12
10.1.4.- KOORDINAZIOA .....	12
10.2.- OHIKO NEURRI ESPEZIFIKOAK .....	12
10.2.1.- AUKERAKOTASUNA .....	13
10.2.2.- HAUTAZKOTASUNA .....	13
10.2.2.1.- DBHko 4. mailako ikasleak .....	13
10.2.2.2.- Batxilergoko 1. mailako ikasleak .....	14
10.2.2.3.- Batxilergoko 2. mailako ikasleak .....	14
10.2.2.4.- Heziketa Zikloetako ikasleak .....	15
10.2.3.- HEZKUNTZA INDARTZEA .....	15
10.2.4.- HEZKUNTZA INDARTZEKO TALDEKO NEURRIAK .....	15
10.2.4.1.- Bikoizketak arlo batzuetan .....	15
10.2.4.2.- Bi irakasle gela-talde batekin .....	16
10.2.4.3.- Lankidetzako ikaskuntza .....	16
10.2.4.4.- Helburu espezifikoak dituzten ekintzak .....	16
10.2.5.- BANAKAKO HEZKUNTZA INDARTZE NEURRIAK (HIBP) .....	16
10.2.5.1.- Gelan egiteko indartze ekintzak .....	18

10.2.5.2.- Liburutegia .....	18
10.2.5.3.- Berdinen arteko tutoretza .....	18
10.2.5.4.- Tutoretza indartzea .....	18
10.2.5.5.- Hezkuntza arreta ez erlijiosoa (HEAR) .....	18
10.3.- EZ OHIKO NEURRIAK DBHN .....	18
10.3.1.- URTEBETE GEHIAGO EGOTEA KURTSO BATEAN .....	18
10.3.2.- ERREPIKAPEN BEREZIA .....	19
10.3.3.- DBHN ESKOLATZE-DENBORA URTEBETEZ MURRIZTEA .....	19
10.3.4.- CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPENAK (CNE) .....	19
10.3.4.1.- Curriculumeko sarbiderako egokitzapena .....	19
10.3.4.2.- Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak .....	20
10.3.5.- HIZKUNTZA INDARTZE PROGRAMA (HIP) .....	22
10.3.6.- HEZKUNTZA BERARIAZ SENDOTZEKO PROIEKTUA (HBSP) .....	22
10.3.7.- CURRICULUM ANITZEKO PROGRAMA (CA) .....	23
10.3.8.- IJITO IKASLEEI BERARIAZKO ARRETA .....	23
10.3.9.- ESKOLA-ABSENTISMO PROGRAMA .....	23
10.3.10.- ETXEKO ASISTENTZIA PROGRAMA .....	24
10.3.11.- ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK .....	24
10.3.11.1.- Eskolatzeko osagarria .....	24
10.3.11.2.- Hasierako Lanbide-Prestakuntzarako Programa - 15 urte (HLPP-15) .....	24
10.3.12.- BESTE PROGRAMA BATZUK .....	25
10.3.12.1.- OSATUZ .....	25
10.3.12.2.- BIDERATUZ .....	25
10.4.- EZ OHIKO NEURRIAK BATXILERGOAN .....	25
10.4.1.- CURRICULUMEN SARBIDERAKO EGOKITZAPENA .....	25
10.4.2.- DENBORAREN MALGUTASUNA .....	26
10.4.3.- IRAKASGAI BAT URRUTITIK EGITEA .....	26
10.4.4.- ETXEKO ASISTENTZIA PROGRAMA .....	26

#### IV. BLOKEA. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

11.- ANIZTASUNI ERANTZUTEKO NEURRIAK ETA GURASOETIKO ELKARLANA ETA INFORMAZIOA	26
12.- JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA .....	27
13.- PLANAREN EBALUAZIOA .....	27

## I. BLOKEA. ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN PRINTZPIOAK

### 0. SARRERA

Aniztasunaren trataera da, planteamendu inklusibo batetik abiatuta, hezkuntzaren kalitatea baloratzeko irizpide giltzarrietako bat. Eskola inklusiboarekin konprometitutako egileei jarraituz (Ainscow, Booth eta Dyson) eskola inklusiboa "ikasle guztiek heziketa eskubidea bermatuta izan dezatela, baina ez edozein heziketa baizik eta aukera-berdintasunarekiko kalitate heziketa" definitzen dugu.

Ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak lortzearen helburuak oinarrizko konpetentziak eskuratzeari, ikasleen aniztasunaren arretari eta ikasleek agertzen dituzten zailtasunei aurre egiteari lehentasuna ematera behartzen gaitu bai gure Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) baita Ikastetxearen Curriculumaren Proiektuan (ICP) ere. Hori dela eta, beharrezkoa da ikasteko arazoak dituzten ikasleentzat laguntza neurriak planifikatzea eta parte hartzen duten agente guztien esku-hartzeak koordinatzea Aniztasunari Erantzuteko Planaren (AEP) bitartez Ikastetxearen Urteko Planaren (IUP) atal bat izango delarik.

### 1.- ANIZTASUNARI ERANTZUNA LEGEAN

**175/2007 DEKRETUA**, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa eta **97/2010 DEKRETUAK** aurrekoa aldatzen duenak

24. artikulua. "Aniztasunaren trataerarako neurriek erantzun egin behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten".

26. artikulua. Aukerakotasuna eta indartze-jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak aukerakotasunerako eta indartze-jardueren ezarpenerako eremu bat eskaintzen die ikasleei, eta eremu hori ezartzeak helburu hau du: ikasleen interesei eta premiei erantzutea, ikasketak indartzea ikasleak premia handiena duen gaitetan, orientazio-aukerak handitzea, bizitza aktiborako trantsizioa erraztea eta Oinarrizko Hezkuntzako helburuek finkatutako gaitasunak garatzen laguntzea".

27. artikulua. Esku-hartze orokorreko eta esku-hartze espezifikoko proiektuak.

28. artikulua. Curriculum Aniztasuneko programak.

31. artikulua. Eskolatze Osagarriko Programak.

34. artikulua. "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igarotzen ez den ikasleak urtebete gehiago eman beharko du maila berean. Neurri horiek hartuta, plan bat egin beharko da, ikasle bakoitzarentzat berariazkoa, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzeko. Bigarren maila-errepikapena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan egin behar badu ikasleak, urtebetez luza daiteke dekretu honetako 32.3 artikulua araututako adin-muga".

Eskola inklusiboaren esparruan **Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016**.

**Hezkuntza-Indartzeko Banakako Plan (HIBP) egiteko orientabideak 2012**.

Eskola Inklusibo eta Interkulturalaren esparruan **Ikasle Etorkinentzako Heziketa-Arreta Plana 2012-2015**.

**Ikasle Ijitoentzako Heziketa-Arreta Plana 2012**

**2008ko Uztailaren 7ko aginduak** ikasleen ebaluazioa Oinarrizko Heziketan (20. artikuluan) arautzen duen jasotzen du DBHn "ikasgai guztien konpetentziak lortu gabe hurrengo mailara igarotzen direnek, ikaskuntza-prozesua indartze aldera irakasle-taldeak ezarriko duen programa egin beharko

dute ikasi gabekoa ikasteko, eta programa horri dagokion ebaluazioa gainditu beharko dute. Ez igarotzeko neurria hartuta, berariazko plan bat egin beharko da ikasle bakoitzarentzat, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzera bideratua”.

**2014-2015 ikasturtea antolatze moduari buruzkoa ebazpena** "ikastetxe bakoitzak bere Hezkuntza-indartzeko Plana egingo du, non ikasleen banakako edo taldeko ikasteko zailtasun arrunten aurrean irakasleek diseinatutako hezkuntza-errefortzu neurriak bilduko diren”.

## 2.- ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN ESANAHIA

Aniztasuna era orokorrean ulertu behar da eta aniztasun honen onarpenak eta hau errespetatzen duten irakaskuntza-jarduerak zentzua ematen diote integrazioari.

DBHko ikasleak nerabezaroan sartzen dira etapa honetan. Gizabanako gazteek mota guztietako ikasketak garatu behar dituzte denboraldi horretan, helduen munduan erabat sartu baino lehen.

Denboraldi honetan, nerabeek aldaketa sakonak izaten dituzte alderdi fisiologikotik, intelektualetik eta afektibotik, eta aldaketa horiek eragina izaten dute nortasuna lantzean eta norberak bere buruaz duen kontzeptuan; halaber, pertsonen arteko harreman berriak eta pentsaera berriak eragiten ditu.

Garapen ebolutiboan hainbat erritmo izateak, kanporatzen hasten diren interes akademikoek eta profesionalek, itxaropenek eta bizitzako asmoek eragiten dute, besteak beste, aniztasuna nabarmenago bihurtzea. Aniztasuna hauetan zehatz daiteke: ikaskuntza estiloan, komunikazioan, autonomian, auto-kontzeptuan, gaitasunetan, interesetan, motibazioetan, etab.

Ikasleen aniztasun agerpen orokor hauezaz gain berariazkoak ere suertatzen dira, bai banakakoak, goi mailako gaitasunei edo adimen, gorputz eta zentzumen urritasunei dagozkienak, baita talde mailakoak, inguru soziokultural behartsuetan edo etnia kultura gutxiengoekin erlazionatutakoak.

Laburbilduz, heziketa inklusiboak ikasle guztientzat kalitatezko, zuzen eta bidezko heziketa lortzeko konpromisoa eta jarrera dakartza. Ikasle guztiekin zerikusirik du. Benetako agerpenean, parte-hartzean eta balioetsitako emaitzen lorpenean oinarritzen da; edozein baztertze-erari aurre egitea dakar; eta inoiz bukatuta jotzen ez duen prozesu bezala hartzen da.

## 3.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

Aniztasunari Erantzuteko Plana (AEP) gure zentroko ikasle guztien eta, batez ere, Hezkuntza Laguntza Berezia Behar (HLBB) duten ikasleen heziketa-beharretara emateko neurri, proposamen kurrikular eta antolatzaileen multzoa da.

Aniztasunari Erantzunaren printzipio orokorrak eta irizpideak gure lanaren gunea dira. Horretarako, gure ikastetxeak aniztasunari erantzunerako antolakuntza eta curriculum beharrezkoak diren neurriak martxan jarri ditu; horrek ikasketen antolaketa malgua eta ikasleen norberaren beharrei egokitutako arreta pertsonala baimentzen ditu. Neurri horiek ikasle guztiek beraien gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatu eta oinarritzko kompetentziak eta curriculum helburuak lor ditzatela zuzenduta daude.

Ikasteko zailtasunak tratamendu goiztiarra eta antzematea beharrezko errefortzu eta laguntza neurrien eta mekanismoen bitartez egiten dira. Gure ikastetxean ikasleen balizko ikasteko zailtasunak detektatzeko mekanismoak hasiera batean honako hauek izango lirateke: norbanakoaren txostenen analisia, ikasleen zuzeneko behaketa, erregistro anekdotikoak eta hasierako probak.

Neurriak inklusiboak izango dira eta inoiz ere ez dira baztertzailerak izango, Oinarritzko Hezkuntzaren helburuak lortzeko, ezta dagokion titulazioa lortzeko ere.

Neurriak ahalik eta normalizazio gehien lortzeari begira izango dira eta, ekimen espezifikoagoak planteatu behar izango balira, denboran mugatuak izaten saiatu beharko da.

IHPko ondorengo oinarriek eragina dute AEPn:

- a) Inklusibitate printzipioa: Irakasleak, beharrezkoak diren laguntzekin, norberaren esperientzia kontuan hartuz, edozein ikasle hezkuntza taldean parte hartzeko gelako ohiko ekintzak era egokian antolatuko ditu bakoitza bere gaitasunak ahalik eta gehien gara dadin, beharrezkoak diren moldaketak eginez.

Honek guzti honek materialetan, metodologian eta antolakuntzan aldaketak eskatzen ditu hezkuntzan lan egiten duten partaide guztien elkarlana eta adostasuna lortuz.

Ahalik eta lasterren ikasleen arreta pertsonalizatua prebentzio neurririk hoberena da ikasketa zailtasunei aurre egiteko eta eskolara ez egokitzera eta giza bazterkeria ekiditeko.

- b) Institutuaren barnean egotea: Antolakuntza aldeak garrantzi handikoak dira aniztasuna trataera ahalbideratzeko. Hori dela eta, ikasle guztien beharrei erantzutea izango da ikastetxearen antolakuntzarako ezinbesteko irizpidea.

Honek antolakuntza modu desberdinak proposatzeko malgutasuna dakartza eta horren ondorioz, denbora eta espazio erabileretan ere bai.

- c) Curriculum barnekoa: Curriculumaren planifikazioak nahiz garapenak aniztasunaren erantzuna erraztu behar dute eta taldeak hezkuntza eragile bezala duen indarra aprobetxatu. Ildo honetatik, curriculum elementu desberdinen egiturak eta edukiak kontuan hartu behar dute gelan agertzen den aniztasun oro curriculum barruan sartu.

Elkarlana eta gogoeta irakasleen artean: Talde guztiak desberdinak eta anitzak direnez gero, ikastetxean aniztasunarekiko jokaera koherenteak irakasleen arteko konpromisoa eskatzen du bai eta norberaren praktikari buruzko gogoeta eta ikastetxeko beste irakasleekin eta kanpoko agenterekin beharrezkoa den koordinazioa ere.

Hori dela eta, zuzendaritza taldearen inplikazioa ezinbestekoa da irakaskuntza prozesuen berri emateko, koordinaziorako espazioak eta denborak egokiak ikastetxeko antolaketa programan aurreikusteko eta kolaborazio eta talde-lana kulturako garapena sustatzeko.

Irakasle eta zuzendaritza taldearen formakuntzan euskarri bezala balio izan behar duen elementu garrantzitsua izango da.

- d) Irakasle eta familien arteko lankidetzag: Irakasleen eta familien arteko lankidetzag oso elementu garrantzitsua da ikasketa prozesuen optimizatzeko. Beharrezkoa da familiekin informazio truke bidirekzionala bilatzea, bere seme-alaben heziketa-prozesuan inplikazioa lortzeko eta haien formazio integrala erraztuko dituzten jokaera-jarraibide koherente eta osagarriak ezartzeko, baita ere eskola-dinamika osoan bere parte-hartzea lortzea.

- e) Ingurunera eta komunitatearen baliabideetara errekurtsuetara ikastetxea irekitzea: Dolores Ibarruri BHI ikastetxea komunitatean beste baliabide bat bezala integratzen da eta, halaber, bertan agertzen diren beste errekurtsuak aprobetxatzen ditu, hala nola, giza-hezitzaileak, osasun arloko espezialistak, kultura bitartekariak eta edozein eratako instituzio (elkartek, harrera zentroak, osasun zentroak, besteak beste) heziketa-jarduera hobea eta, espezifiki, ikasleen aniztasunerako arreta integrala dakartzatela.

Ingurunearekiko harremanaz hitz egitean ikastetxeen artekoa ere hartzen dugu barne, ez soilik informazioa elkartrukatzeko baizik eta baterako proiektuetan laguntzeko eta erakundeen arteko beharrezkoa den harremana, bai udalekoak, bai autonomikoak.

Hori dela eta, baliabide guzti hauen koordinazioa eta zeintzuk diren gehiago zabaltzea beharrezkoa da. Gure ikastetxean Zuzendaritza Taldea eta Orientabide Departamentua ingurunearekiko harremana erraztu eta koordinatzeko ardura dute.

#### 4.- ANIZTASUNARI ERANTZUNA ETA IKASTETXEKO BESTE DOKUMENTUAK

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua:

- a) Ikasle guztiei erantzuna egokia emateko asmoz ikastetxeko kulturak, politikak eta egiten diren praktikak biltzen dituen dokumentua da.
- b) Berdintasuna, zuzentasuna eta justizia biltzen ditu.
- c) Ikasle guztien ikasketen oinarriak bermatzen ditu.
- d) Irakasleek ikasle guztien itxaropen altuak izaten saiatzen da.
- e) Beraz, aniztasunari erantzuteko neurriak xedatuko dituzten irizpideak biltzen ditu ingurune sozioekonomikoa eta kulturala kontutan hartuz eta era egokian erantzuten bai euskal gizartekoa, bai ikastetxeko ingurunea eta ikasleen ezaugarriak eta beharrak neurri hauen helburua hezkuntza xedeak eta oinarritzko kompetentziak eskuratzea izanik.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), gutxienez, ondorengo aspektuak izango ditu:

- a) Irakaskuntzako aspektu guztietan ikasleen beharretara egokitutako hezkuntzako gaitasunak, helburuak eta edukiak. Oinarritzko gaitasunek eguneroko bizitzarako erabilgarriak diren edukien aukeraketa egitera bideratzen dute, eta eskolarako balore berri bat dira.
- b) Irizpide pedagogikoen eta didaktikoen zehaztapena eta ikastetxearen irakasleen lanaren jarraipena eta koherentzia bermatzen duten material curricularren aukera metodologikoak.
- c) Aniztasunari arreta curriculumeko garapenaren neurriekin eta laguntza pedagogikoarekin lotura, hezkuntza laguntzako behar bereziak dituzten ikasleen trataera bateraturako irizpideak ezarriz, bai hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasleentzat, bai ahalmen handiko ikasleentzat, baita hezkuntza sistemako sarbide berantiarra duten ikasleentzat ere.
- d) Aukerakotasunari eta curriculumeko anitzeko programari buruzko erabakiak.
- e) Arlo berbera ematen dutenen artean gelako programazio curricularra egingo dute, horrela koordinazioa (egin beharreko ekintzei, erabiltzeko lekuei, gelaren antolakuntzari eta denborari dagokienez), arlo edo ikasgai beraren aurreko ikasleen aukeren berdintasuna eta Oinarritzko Hezkuntzan eta etapan zehar aurrerapena bermatuko dira. Ikasleen arteko lan kooperatiboa eta autonomia errazten duen gela antolatzea beharrezkoa da.
- f) Laguntza pedagogikoa. Ikasleen aniztasunari erantzuteko ikastetxearen gaitasuna areagotzen duten ekintza guztiei dagokie. Irakasleek, familiarekin batera, ikastetxearen eta elkarleen baliabideak batzen dituzte, ikasle guztien ikaste aktiboa sustatzeko.

Ikastetxearen Urteko Planak (IUP), gutxienez, honako hauek bilduko ditu:

- a) Orientazio eta Tutoretza Urteko Plana
- b) Elkarbizitza Urteko Plana
- c) Berdinatasuneko Plana
- d) Aniztasunari Erantzuteko Plana
- e) Hobekuntza Plana

## 5.- ANIZTASUNARI ERANTZUNAREN NEURRIEN XEDEA ETA HELBURUAK

Aniztasunari erantzuteko neurriak hurrengo puntuei begira izango dira:

- a) Eskola komunitate abegitsu, kolaboratzaile eta bizigarria eraikitzea, norbanakoa bere gaitasun eta ahalmen guztietan baloratua izango dena, eskola arrakastarako oinarri gisa.
- b) Ikasle bakoitzaren hezkuntza- eta giza- beharrei erantzutea.
- c) Ikasle guztien ikaskuntza eta parte hartzea bultzatzea, bereziki ahultasun egoeran daudenen kasuetan eta, beraz, baztertzeko arriskuan daudenetan.
- d) Curriculumean dauden oinarrizko kompetentzien maila minimoak lortzea.
- e) Gela barruko laguntzak jasotzea eta antolatzea, ikasle bakoitzaren eta guztien beharrei erantzuteko.

DOLORES IBARRURI BHIk ikasleen aniztasunari erantzuna eman nahi dio eta, hurrengo **helburuak** lortzeko gai den hezkuntza integrala egin nahi du:

- a) Ikasle bakoitzaren ahalbideei, ahalik eta gehien egokituta, arreta bultzatzea.
- b) Ikastetxearen ikasle guztien beharrei erantzuna ematea.
- c) Hezkuntza eredua ezartzea, ikasleek behar izango duten laguntzetan ardatz duena, euren ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko.
- d) Iritzi, motibazio, interes,... anitzen aurrean guztien errespetu-jarrera lortzea, ikastetxearen elementu abesgarri gisa ulertuz.
- e) Irakasle eta familien arteko kooperazioa erraztea, euren seme-alaben hezkuntza-prozesuan inplikazioa bultzatuz, informazio elkartrukea sustatuz, aniztasunari erantzuteko neurrien arrakasta bermatzeko.
- f) Ikasleek ahalegintzeko eta ikasteko ohiturak har ditzaten bultzatzea, norbanakoaren garapen intelektuala eta pertsonala lortzeko.
- g) Ikastetxea bere osotasunean inplikatzeko, antolakuntza eta funtzionamenduaren aldaketen bitartez, guztion lan egiteko eran aniztasunari arreta sartuz.
- h) Ikasleek euren irakas-ikaskuntza prozesuan inplikatzeko.
- i) Ikasle guztien inklusio soziala eta eskola integrazioa erraztea, ikastetxeko eta gelako testuinguruaren barruko ezberdintasunak errespetatuz eta normalizatuz, taldea indartuz lan elementu gisa norbanakoaren ezaugarriak bultzatzeko eta, faktore kultural, sozial, pertsonal eta akademikoek sortu ahal dituzten zailtasunak gainditzen saiatuz.
- j) Irakasle guztiak inplikatzeko, AEP honetan bildutako aniztasunari erantzuteko neurrien garapenean, bakoitzari dagokion arloan, lankidetzan, koordinazio eta talde lanaren inguruko kultura sustatuz.
- k) Ikasleen gaineko informazio zehatza lortzea eta sistematizatzea, euren zailtasunak gainditu ahal izateko prebentzio eta esku-hartze estrategiak diseinatu eta praktikan jarri ahal izateko; eta beraz, euren formakuntzan eta garapen integralean aurreratzeko eta heziketa neurriak ahalik eta egokienak aukeratzeko (prozedurei, metodologiari, ebaluazioari eta antolakuntzari dagokienez, besteak beste); horrela, ikasle bakoitzaren beharrei ondoen egokitzen zaion hezkuntza-erantzuna eman ahal izateko.
- l) Ikastetxeko ikasleen gizarte-bazterketa eta curriculum-uztearen arriskua jaistea, eta promozio akademikoari begirako ekintzen garapena koordinatzea; DBHn bereziki, hezkuntzan behar bereziren bat dutenei arreta berezia eskainiz.



- m) Ikasleek ikasketa globalizatzaile eta diziplinartekoen lor ditzaten erraztea, euren balore nabarmen eta funtzionala azpimarratuz.
- n) Ikasleen formakuntzan hezkuntza- eta giza-baliabideen sareen erabilera indartzea, baita inguruko baliabide kulturalenak ere.

## II. BLOKEA. ANIZTASUNARI ERANTZUTEN PLANA (AEP) DISEINATZEKO PROZESUA

### 6.- DOLORES IBARRURI BHIko IKASLEEN ANIZTASUNAREN ERAGILEAK

Gure ikasleen aniztasuna hurrengo faktoreetatik dator:

- a) Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinetatik etorritako ikasleak (CEIP Askartza Isusi HLHI, CEIP Etorkizuna Ikastola HLHI, CEIP Buenos Aires HLHI y CEIP El Casal HLHI).
- b) Ikaskuntzan motibazio gabeko ikasleak. Ikasle hauek, motibazio eta lan pertsonalaren gabeziagatik, askotan eredu negatibo bihurtzen dira; ikastetxera behartuta joaten dira eta ikasteko orduan ez dute inolako interesik adierazten. Hauek desoreka curricular adierazgarria izaten dute eta honek eskola-porrota dakar.
- c) Ikasteko orduan era ezberdinak dituzten ikasleak. Oldakorrak / zuhurak; arreta adierazten dutenak /arretarik adierazten ez dutenak; indibidualistak / taldean lan egiteko gai direnak, eta abar.
- d) Ijito ikasleak.
- e) Ikasle etorkinak edo euskal hezkuntza sisteman sartu berri diren ikasleak, EAEaren hizkuntza koofizialen ezagutza urria dutenak.
- f) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. (HPB)

Eskola Inklusiboaren Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoan bildutako Hezkuntza Saileko ildoen arabera, hezkuntza premia bereziko ikasleak dira (HPB) ondorengoak, aurrekoak ere gehitu ahal direlarik:

- a) Hizkuntza Premia Bereziko ikasleak
- b) Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak
- c) Ahalmen handiko ikasleak
- d) Hezkuntza Sisteman sarbide berantiarra duten ikasleak
- e) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, baldintza pertsonalengatik edo duten eskola-historiagatik
- f) Desberdintasun sozialaren egoeran dauden hezkuntza premia bereziko ikasleak

### 7.- IKASLEEN DIAGNOSTIKOA EGITEKO PROZESUA

Ikasturtean zehar ekimen ezberdinak burutzen dira hurrengo ikasturteko AEP prestatzeko ikasleen diagnostikoa egiteko ahalbidetzen dutenak:

- a) Ikasle berrien informazioaren bilketa eta berrikuspena:

Matrikula aldian, otsailean, DBH 1. mailako ikasleen aurreikuspena egiten da, hezkuntza premia berezi berriak eta ikasle bakoitzaren jatorria eta ezaugarriak barne. Data berean DBH beste maila batzuetarako ikasleen matrikulazio berriak ezagutzen ditugu.

Ikasketa Burutza eta Orientazioa zonaldeko ikastetxeekin batzen dira, otsaila eta martxo bitartean, ikastetxean sartuko diren hezkuntza premia berezietako ikasleen ezaugarriak ezagutzeko, HPBko plantilaren aurreikuspena egin aurretik.

Martxoan batxilergoko aurreikuspena egiten da: izan ahal dituzten beharrak eta ezaugarriak ikusteko.

HPBko zerrenda eta aurreikusitako baliabideak bidali baino lehen, Ikuskaritzarekin bilera bat egiten da, bertan ikastetxeak, Berritzeguneak eta Ikuskaritzak parte hartzen dutelarik.

Martxoaren amaierarako hurrengo ikasturterako HPBko zerrenda prest egon behar da.

b) Ikasle berriei buruzko informazioa osatzeko ekintzak:

Ekainean erreferentziazko ikastetxeen tutoreekiko koordinazio-bilerak.

Erreferentziazko ikastetxeen kontsultoreekiko eta Berritzeguneko aholkulariaren bilerak, HPBko ikasleei buruzko informazioa zehazteko.

Beste ordezkari batzuekiko bilerak (Osakidetza, zonaldeko zerbitzu sozialak,...)

Kasu jakin batzuetan familiarekiko bilerak.

Ikuskaritza, Berritzegunea eta Institutuaren arteko bilera HPBko ikasleen baliabideak adosteko (CNEren arloak eta laguntza-orduak).

c) Behar berriak antzematea:

Ikasturtean zehar ikasleek bai talde mailan bai maila indibidualean sortu ahal diren zailtasunen informazioa bilduko dute, hautemandako arazoaren arabera behaketarako txantiloirekiak edo estandarizatuak erabiliz. Tutorea informazio guztia batzeaz eta ikastetxeko orientatzaileari eskaera antolatzeaz arduratuko da. Tutoreak eta orientatzaileak kasu bakoitzean jarraitu beharreko estrategiak aztertuko dituzte. Balorazio psikopedagogiakoa egitea beharrezkoa izango balitz, orientatzaileak Berritzeguneari eskaera bidaliko dio.

d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren deialdien arabera, Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektuan edo Curriculum Anitzeko Programan sartu ahal diren ikasleak antzematea.

## 8.- PLANAREN GARAPENA

Ikasturtearen amaieran eta hurrengoaren hasieran ekimen ezberdinak burutzen dira AEP aplikatzeko eta zehazteko:

1. Taldean egituraketa: Sartzen diren ikasle berrien, promozionatutakoen eta errepikatzaileen informazioarekin ekainaren amaieran bilera bat egiten da, ikastetxeak dituen baliabideak kontuan izanik taldeak osatzeko. (bikoizketak, PT, laguntzailea, AMUGE elkarteak,...)
2. Irakasle taldearen bilera: Ikasturtea hasi aurretik, irailaren lehenengo egunetan, irakasle taldearekin eta tutoreekin bilera bat egiten da hurrengo helburuekin: ikasle berri bakoitzaren berri emateko, horien dokumentazioa banatzeko eta taldeak aztertzeko.
3. Ikaslearen txostena: Irailean eta urrian ikaslearen txostena osatzen da, honako hauek kontuan izanik:
  - Hasierako galdetegia: datu pertsonalak eta curricularrak.
  - Arlo bakoitzeko maila curricularren arabeko ebaluazioak (probak, jarduerak,...)
  - Orientazio Sailatik, Berritzegunetik edo beste erakunde (CRI, APNABI,...) batzuetatik jasotako datu esanguratsuak HPBko zerrendan egoteagatik.

- Familiak emandako datuak.
  - Soziograma edo taldearen gaineko iritzien elkar-trukaketa.
4. Departamentuetako bilerak: Ikasturtearen azken hiruhilabetekoan departamentu bakoitzak laguntzen eta errefortzuen antolakuntza eta irizpideak jarriko ditu, baita hautazkoen eskaintza ere.
  5. Gelako eta laguntza irakasleen arteko koordinazioa, HPBko ikasleekin jarraitu beharreko programa zehazteko.
  6. Jarraibideen banaketa, ikasleen hezkuntza arreta optimizatzeko, tutoretza ekintza programaren bitartez euren gaitasunak, motibazioak, interesak eta ikaste-erritmoa kontuan izanik.
  7. Hezkuntza-errefortzu diseinua, garapena eta ebaluazioa, aldi baterako eta malgua. Ekintza hauetan parte hartuko duten ikasleak izango dira, alde batetik, irakasle taldeak hasierako ebaluazioaren ostean proposatutakoak eta bestetik, Lehen Hezkuntzatik datozenak, beti ere Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzean txostenak hala aholkatzen duenean.
  8. Ebaluazio jarraituaren prozesua, ikasle baten aurrerapena egokia ez denean, hezkuntza-errefortzuko neurriak jartzen dira. Neurria hauek ikasturtearen edozein unetan jarri ahal dira, zailtasunak antzeman bezain pronto eta nahitaezko ikaskuntza lortzen dela bermatzeko dira, hezkuntza prozesua jarraitu ahal izateko. Beste aukera batzuen artean, ikaslea hezkuntza-errefortzu talde batean sartzea, Hezkuntza Bereziko irakasleen esku-hartzea, gurasoen baimenarekin, hala nola Hezkuntza Indartze Banakako Programaren (HIBP) elaborazioa.
  9. Ohiko ebaluazioan ebaluazio negatiboa duten ikasleentzat arloko irakasleak ikasleak lortu ez dituen helburu eta edukiei buruzko txostena beteko du eta errekonferentzia ekintzen proposamena egingo du. Txosten horren barnean daude: hartutako neurriak, kasuaren arabera, ikasleak oinarrizko gaitasunak eta arlo bakoitzeko ezarritako dauden helburuak lortzen.
  10. Ez ohiko ebaluazioko probak lortu ez diren helburuetan eta helburu horiei dagozkien edukietan oinarritzen dira, eta honek kalifikazio buletinarekin batera, ohiko klase-aldiaren ostean, ikasleari ematen zaion errekonferentzia ekintzen proposamenari erantzuten dio.
  11. Ekaineko ohiko saioan promozionatuta ez diren ikasleak berriro ekaineko ez ohiko saioan ebaluatuta izango dira.
  12. Ikasgai guztiak gainditu barik promozionatuta den ikasleak errefortzuzko programa bat (HIBP) jarraituko du, programa hau lortu ez dituen ikasleentzako berreskurapenera zuzenduta dago eta programa honi dagokion ebaluazioa gainditu beharko du. Beraz, gaindituta ez dauden ikasgaien kalifikazioan kontuan izango da, bai promozionatzeko kasuetan baita dagokion titulazioa lortzen ere. Departamentu didaktikoei programa hauen antolakuntza dagokie. Ikasturte hasieran programa hauen edukierari buruzko informazio emango zaie ikasleei eta bere gurasoei edota tutoreei ere.
  13. Promozionatuta ez den ikasleak beste urte bete eman beharko du kurtso berean. Neurri honekin batera Hezkuntza Indartze Banakako Plana (HIBP) abian jartzen da, aurreko ikasturtean antzemandako zailtasunak gainditzeko. Departamentuei dagokie euren arloekin erlazionatuta dauden aspektuetan plana egitea, indarrean dagoen legeak dioen bezala. Banakako planaren edukieraz informazioa ematen zaie ikasleari eta bere familiari ikasturte hasieran.
  14. Eskolatze osagarriko ikasleak. 1998ko uztailaren 30eko AGINDUA, 2002ko maiatzaren 7ko AGINDUAK moldatua, 14. Artikuluan ezartzen du "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan,

zenbait ikasleren hezkuntza beharrei erantzuna emateko ohiko eta ez ohiko bide guztiak agortu ondoren, eta gizarte-egoera zailean edo eskolara egokitzeke zailtasun larrian dauden ikasle multzoei erantzuteko, berariazko tratamendu bat erabaki daiteke salbuespen gisa Eskolatzeko Programa Osagarrien bitartez 14 urtetik 16ra bitarteko ikasleentzat”

Jarraitu beharreko prozedura:

- a) Ikasturte horretan eskolarizatuta dagoen irakasle taldea bilduko da, bertan ikastetxearen Orientatzaileak eta laguntza zerbitzuetako aholkularitzak ere parte hartuko dute. Hezkuntza Ikuskaritzaren kolaborazioa eta iritzia ere eskatu ahal izango da, eta hala badagokio, eskualdeko zerbitzu sozialena ere. Ikasleak Eskolatzeko Programa Osagarriko Programan parte hartzeko proposamena beharrezko egiten dituzten baldintzak azaltzen dituen txostena burutuko da. Era berean, txostenean banakako proposamen kurrikularra azalduko da, beharrak eta lortu nahi diren helburuak zehaztuz.
  - b) Irakasle taldeak Programa hauek garatzeko baimenduta dagoen ikastetxe bat proposatu ahal izango du, eta Hezkuntza Administrazioak ikastetxerik egokiena aukeratu du.
  - c) Arduradun legalei esango zaie zelan jardungo den, euren ikuspuntua eskuratuz, eta proposatuko den neurriari buruzko era guztietako informazioa erraztuz.
  - d) Txostenari ordezkari legalen eta ikaslearen beraren baimena erantsiko zaio.
  - e) Irakasle taldeak ikastetxeko Zuzendaritzari proposamena luzatuko dio, honek aztertu beharko du eta hala badagokio, tramitazioari ekingo dio.
15. Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko baldintzetan ez dagoen ikaslea, eta 16 urte baino gehiago duena, Hasierako Lanbide-Prestakuntzarako Programan sartzea baloratuko da. Ez ohiko gisan, programa hauetan ere sartu ahal izango dira 15 urteko ikasleak, DBH bigarren mailan ikasi dutenak, promozionatzeko baldintzetan ez daudenak eta etapan behin errepikatu dutenak.
16. Ikaslearekin berarekin edo ikasle taldearekin orokorrean egiten diren ekintzen gaineko informazioa familiei ematea.

Ikasturte hasieran edo ikaslea sartzeko den momentuan bertan ikasleari, gurasoei edota tutore legalei abisatu egiten zaie.

Ikastetxeak familiekiko hezkuntza konpromisoen harpidetza ematen du, ikaslearen errendimendua eta plan eta programa hauen emaitzak hobetzeko asmoz, ahal den guztietan idatziz izanik.

Familia jakin batekin kolaborazioa zaila denean zerbitzu sozialen esku hartzea eskatuko da.

## 9.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO GIZA-BALIABIDEAK

**Zuzendaritza taldea:** Zuzendaritza taldeak aniztasunaren trataera zuzenean antolatu eta kudeatzen du. Horretaz gain, Ikasketa Burutzak planari oniritzia ematen dio eta bere proposamenak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren antolakuntza aldaketak egiten ditu.

**Irakasleen Klaustroa:** Klaustroak ICP eta IUP onartzen ditu, bertan irakaskuntza-ekintzen urteko programa eta AEP daudelarik. Orientaziorako eta tutoretza ekintzarako irizpideak ere zehazten dira.

**Departamentu Didaktikoak:** Departamentu Didaktikoak ICPren proposamena burutzen du. Era berean, etapan zeharreko programazioak koordinatzen ditu, era koherente eta jarrai batean. Arloko ikaskuntzan egon daitezkeen arazoak ere aztertzen ditu, proposamen didaktikoak bilatzen ditu, errefortzuko neurri egokiak proposatzen ditu eta ikasleen aniztasunari erantzuteko gai diren ikaskuntza egoerak planteatzen ditu.

**Irakaslea:** Hezkuntza esku hartzean, irakasleak ikasleen gaitasun eta jarrera ezberdinak identifikatu eta behatzen ditu eta horren arabera euren gaitasunen garapenak ahalik eta gehien lortzeko bere metodoak egokitzen ditu. Programazioen bitartez, curriculumean sartuta dagoen bokaziozko orientazioa ahalbidetzen du, interesak eta itxaropenak sustatuz, eta ikasleen erabaki pertsonalak eta arazoituak bultzatuz.

**Taldeko irakasleak:** Gelako irakasle taldeak ikasleen ezaugarriak eta prozesua kontuan harturik curriculuma koordinatu eta egokitu egiten du.

**Tutoretza:** Tutoreak ikasle talde baten hezkuntza prozesuaren arduraduna da. Ikastetxearen Orientatzailearen aholkularitza eta laguntzarekin curriculumaren egokitzapenen garapena eta elaborazioa koordinatzen du.

**Orientabide Departamentua:** Orientazio eta Hezkuntza Laguntzaren ardura irakasle talde guztiarena da eta Orientazio Taldearen bitartez egituratzen da, tutoreen ekintza bateratuz, planifikatuz eta koordinatuz. Tutoretza Ekintza Planaren bitartez tutoretza ekintzei buruzko irizpideak ezarriz eta AEPren bitartez aniztasunari erantzuna emateko neurriei eta premia bereziko beharrei laguntza ekintzei buruz.

**Hezkuntza Premia Bereziko Taldea:** Hezkuntza Premia Bereziko arretarako, ikastetxeak Pedagogia Terapeutikoko irakasleak eta Hezkuntza Laguntzako Tekniko Espezialistak ditu.

- a) Pedagogia Terapeutikoko irakasleak: Institutuan Pedagogia Terapeutikoan espezialistak diren irakasleak daude, hauek zuzenean premia bereziko ikasleekin lan egiten dute, ikasle hauen tutoreekin eta arloko irakasleekin koordinatuz.

Ikasle hauekin lortu nahi diren helburu orokorrak honako hauek dira: alde batetik, euren integrazioa erraztea eta bestetik, euren gaitasunei egokitutako lan planean oinarrituta ikaskuntza maila ahalik eta altuena izatea lortzea.

Hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta ohiko gelan ematen zaie eta erabat beharrezkoa denean, eta era puntual batean, laguntza gelan.

- b) Hezkuntza Laguntzako Tekniko Espezialistak: Gure ikasleen beharren arabera beste espezialista batzuen laguntza izan ahal dugu, besteak beste, Fisioterapeuta, Terapeuta Okupazionala, CRiko pertsonala, Zeinu Hizkuntzako espezialista edota, APNABIkoak, EISEkoak, OSAKIDETZAKoak (osasun mentala),...

### III. BLOKEA. 2014-2015 AEP-REN ZEHAZTAPENA

#### 10.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK

Zehaztapan curricularraren hurrengo mailak tresna dira curriculuma testuinguru zehatzera eta espezifikora egokitzeko (curriculum ofizialetik ikastetxearen curriculum proiektura, gelako programazioetatik curriculumaren norbanako egokitzapenetara).

Ikasleen aniztasunari erantzuna emateko ikuspuntua kontuan izan behar da, batez ere, Sailak egiten dituen hausnarketetan eta irizpideetan, etapan ezinbestekoak edo nahitaezkoak irizten dituen ikaskuntzak aukeratzen eta zehazten dituenean.

#### 10.1.- OHIKO NEURRI OROKORRAK

##### 10.1.1.- IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)

ICPn etapako arloaren ikaskuntzen segida eta antolakuntza zehazten dira. Hezkuntza maila bakoitzean garatu nahi diren **helburuak eta oinarritzko gaitasunak** egokitzeko eta zehazteko irizpideak

dakartza, eduki egokiak aukeratzeko eta dagozkien ebaluazio irizpideak formulatzeko. Irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Helburuak eta edukiak sekuentziatzea, alde batetik ikasgaiaren logikari erantzunez eta bestetik, ikaslearen ikaskuntzaren logikari erantzunez; hau da, era adierazgarrian ikasi ahal izateko behar diren betekizunak.
- b) Oinarrizko gaitasunak kontuan izatea, ikasleek etaparen amaieran lortu beharreko ikaskuntza gisa eta hauek maila ezberdinetan lortu ahal direla aintzat hartuz.
- c) Departamentu didaktikoen arteko koordinazioa zehaztea, ikaskuntzak denboran ordenatzeko eta antolatzeko orduan materia ezberdinek eskatzen duten "eskakizun maila" zelakoa den kontuan hartzeko.

Elkarrekin lotuta dauden edukiak batera programatzea eta ikaskuntza segida koherenteak ezartzea.

- d) Etapako maila bakoitzaren eduki minimoak sekuentziatzea. Edukiak aukeratzeko oinarrizkotzat hartzen direnak kontuan hartuz, ikasle guztiak gaitasun eta ahalmen guztiak maila desberdinetan garatu ahal izateko.

Funtsezko edukiak izango dira oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko balio dutenak, edo ondorengo ikaskuntzetarako balioko dutenak. Neurri honek aniztasunari erantzuteko ahalbidetzen du arlo ezberdin bitan: alde batetik, ikasturtean zehar, hain oinarrizkoak ez diren edukiak zailtasunik gabeko ikasleentzat ibilbide osagarria izan zitekeen; eta bestetik, oinarrizko edukiak talde osorako minimoak izango lirateke eta zailtasunak dituzten ikasleen lana horietan zentratuko litzateke.

**Metodologiak** aniztasunari erantzuna emateko aukera gehiago ematen ditu. Erabaki ezberdinak (arlo bakoitzaren beraren aukera didaktikoak, ikasleak taldekatze irizpideak, denbora eta lekuen antolakuntza, material didaktiko eta baliabideen aukeraketa) estrategia didaktikoak ahalik eta anitzenak izateko irizpidean oinarritu behar dira. Irizpide hauek zentzu honetan hartu behar dira aniztasunaren aurrean ikas-irakas prozesu inklusiboa erdiesteko.

- a) Ikasleen taldekatzea modu ezberdinak konbinatzea (banakako lana, bikoteka, taldeka, talde handian,...)
- b) Baliabide eta material didaktiko anitzak eta zailtasun ezberdinetakoak erabiltzea. Ariketa bera baliabide ezberdinen bitartez aurkeztu ahal da.
- c) Ariketa zabalak aurkeztea, ikasleek eduki jakin batzuei buruzko erabakiak hartu ahal ditzaten eta emaitzan era aktiboan inplika daitezten.
- d) Zailtasun maila ezberdineko ikaskuntza ariketa anitzak programatzea, ikasleei gero eta autonomia gehiagorekin (auto-erregulazioa) ikaskuntza adierazgarriak egiten laguntzeko.
- e) Aukera metodologikoak hautatzea, zeinek edukien aurkezpena ikasleei euren ikaskuntza eraikitzea errazten dien, haien aurreko ezagutzatik abiatuz; ikasleen motibazioa pizten dutenak ikasten dutenaren interesa, aplikazioa eta zentzua aurkitzen uzten diena.
- f) Ariketa ezberdinak programatzea oinarrizko edukiak lantzeko eta eduki bera lantzeko esijentzia maila ezberdinetan planteatzea. Ariketa osagarriak ere programatzea beharrezkoa da, gehitzekoak edo sakontzekoak, laguntza gutxiago behar duten ikasleei begira edo ohiko ariketak azkarrago egiten dutenei eta era autonomoan ikaskuntzan jarraitu nahi dutenei begira.
- g) Denbora eta lekuen antolakuntza malgua aurreikustea, ikaskuntza erritmo ezberdinak eta zailtasun posibleak kontuan hartzen dituenak.

- h) Hezkuntza errefortzua ohiko eran erabiltzea. Hezkuntza errefortzua ekimen ezberdinetan erabili ahal da, adibidez, irakasleak ikasle jakin bati kontzeptu bat ulertu ez duenean azaltzen dionean.

**Ebaluazioari** dagokionez, tresna ezberdinak aurreikustea beharrezkoa da, idatzizko frogak (azterketak) bakarrik erabiltzea alde batera utziz. Hau da, programazioak proba objektiboekin batera proba anitzak izan behar ditu, hauek gelan egin diren modukoak izan behar dira eta zailtasun maila ez da berbera izan behar ikasle guztientzat.

Premia bereziko ikasleak kontuan izan behar dira ebaluazioa egiteko orduan, denbora gehiago emanaz edo probak egokituz.

HBSP eta CA ikasleekin minimoak erreferentzia gisa hartuta prestatu behar da azterketa, gainditu ahal izateko. Beste ariketa guztiak landutako eduki gehigarrietan oinarrituko lirateke.

### 10.1.2.- ORDU KREDITUA

Taldeak osatzearen emaitzaren aplikaziotan ateratzen diren ordu kreditua horrela erabiltzen da: DBH 1. eta 2. mailatik sortzen direnak DBH 1. mailan erabiltzen dira bikoiztutako talde heterogeneo bat sortuz (3 taldeetatik 4) Matematika, Euskara, Gaztelania eta Ingelesko ikasgaietan. Horretaz gain, DBH 2. mailan ordu nahiko sortu dira Matematikan eta HEAR ikasgaietan bikoizketa bat egiteko (4 taldeetatik 5). DBH 3. mailan errefortzuzko orduak Matematika, Euskara eta Gaztelania ikasgaietan (3 taldeetatik 4) erabiltzen dira. DBH 4. mailan errefortzuzko orduak Euskara, Gaztelania eta Matematika B ikasgaietan (2 taldeetatik 3) erabiltzen dira. Batxilergoan sortzen diren orduak modalitateko ikasgaien eskaintzarako erabiltzen dira eta 1. mailan Historia Garaikidea eta Gizarte Zientzietarako Matematika ikasgaietan bikoizketak egiteko ere erabiltzen dira aurten.

### 10.1.3.- PATIOAK

GEKEATEko ikasleak atsedenaldiak kirol-ekintzak proposatzeaz eta eramateaz arduratzen dira (astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean).

### 10.1.4.- KOORDINAZIOA

Esleitutako ikastetxe eta eskualdeko beste erakunde batzuekiko koordinazioez gain, gure institutuan DBH 1., 2. eta 3. mailetakiko tutoreekin orientatzaileak astero bilera bat egiten du; eta DBH 4.ean eta Batxilergoan hamabostero egiten da bilera. Zikloetan koordinazioa beharren arabera burutzen da.

## 10.2.- OHIKO NEURRI ESPEZIFIKOAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak neurri hauek ezartzen ditu hurrengo helburuak lortzeko:

- Ikasleen interesei eta beharrei erantzutea.
- Gehiago behar duen ikasgaietan bere ikaskuntza erreforzatzea.
- Orientazio aukerak handitzea.
- Bizitza aktiborako trantsizioa erraztea.
- Oinarritzko Hezkuntzako helburuek erreferentzia egiten dieten gaitasunen garapenean laguntzea.

### 10.2.1.- AUKERAKOTASUNA

Gune curricularra da, bertan ikastetxeak ikasgai batzuk proposatzen ditu, arlo komunitatik ezberdinak, eta ikasleek euren artean aukeratu behar dute.

DBHrako jarraitzen den prozedura honako hau da: apirilean departamentuek ikasgai aukerakoen (tailerrak) eskaintza birpasatu eta eguneratu egiten dituzte. Horren ostean, aurkeztutako eskaintza ikasleekin tutoretzan lantzen da eta familiarekin bilera bat egiten da eskaintza azaltzeko. Maiatzean aukeratzeko orria banatzen da, bertan DBH 2. eta 3. mailetan egongo diren ikasleek aukera ikasgaiak nahien arabera hautatuko dituzte, maila eta eredu linguistikoaren arabera. Ikasle bakoitzak bat ikasiko du, gehien bozkatu direnen artean. Irakaskuntza erlijiosoa kontuan izanik, lau aukeren artean hautatu beharko dute: erlijio katolikoa, beste erlijio bat (zehazteko), erlijioen historia eta kultura edo hezkuntza arreta ez erlijiosoa.

2014-2015eko ikasturtean aukerako ikasgaiak honako hauek dira:

DBH 2.: D ereduan 2 talde honako aukerako ikasgaiak hauetarako: Diseinu eta Ikus-entzunezko Komunikazio, Gorputz Adierazpena: Mugimen Jolasak edo Frantsesa.

DBH 3.: A ereduan ikasle guztiek Gorputz Adierazpena: Mugimen Jolasak ikasten dute. D ereduan Diseinu eta Ikus-entzunezko Komunikazioa, Gorputz Adierazpena: Jarduera Fisiko Osasungarria, Explore Your World edo Frantsesa.

### 10.2.2.- HAUTAZKOTASUNA

#### 10.2.2.1.- DBHko 4. mailako ikasleak

Gune curricularra da, bertan DBH 4. mailako ikasleek aukera libreko 8 ikasgaietatik 3 ikasi behar dituzte.

Ikasleen ikasketen dibertsifikazioa egiten hasteko du helburu, galdu barik, curriculumaren hein handi batean bere izaera komuna eta oinarritzkoa.

Jarraitzen den prozedura honako hau da: maiatzean tutoretzako saio batzuetan eta orientatzailearekin dituzten aukerak landu eta gero, jarraituko duten ibilbidearen arabera euren aukera zehaztu behar duten orria banatzen zaie.

Institutuak bere diseinu curricularrean aukera libreko ikasgaiak taldekatzea erabaki zuen, ikasle bakoitzaren ibilbidea zehazten laguntzeko eta horren araberrako aukeraketa Batxilergoari edo Lanbide Zikloei begira.

8 ikasgaiak horrela taldekatzen dira:

1. aukera: Fisika-Kimika derrigorrezkoa, ikasgai bi aukeratzeko hurrengo artean: Biologia-Geologia, Teknologia, Informatika edo Frantsesa.
2. aukera: Latina derrigorrezkoa, ikasgai bi aukeratzeko hurrengo artean: Hezkuntza Plastikoa eta Bisuala, Informatika, Musika edo Frantsesa.

D ereduan: Lehenengo aukera hartzen duten ikasleek derrigorrez Fisika-Kimika ikasiko dute eta gero ikasgai bi Frantsesa, Informatika, Biologia-Geologia edo Teknologiarene artean. Bigarren aukera hartzen duten ikasleek derrigorrez Latina ikasi beharko dute eta gero ikasgai bi Hezkuntza Plastikoa eta Bisuala, Informatika, Musika edo Frantsesaren artean.

Horretaz gain, eredu bietan hezkuntza erlijiosoa aukeratu beharko dute lau aukeren artean: erlijio katolikoa, beste erlijio bat (zehazteko), erlijioen historia eta kultura edo hezkuntza arreta ez erlijiosoa.

2014-2015eko ikasturtean emandako aukera libreko ikasgaiak eskaini ahal diren guztiak dira, Musika izan ezik.



### 10.2.2.2.- Batxilergoko 1. mailako ikasleak

Martxoan zuzendaritzak Hezkuntza Sailak ezartzen dituen eskakizunekin orientazio-txantiloia eta institutuak diseinatutako eskaintza prestatzen du. Familiek eta ikasleek eskema honi jarraituz aukeraketa egiten dute:

Batzilergo Zientifiko-Teknologikoa: Matematika I eta Fisika-Kimika ezarrita geratzen dira. Hirugarren ikasgaia bikoizketa da hurrengoan artean Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa I edo Teknologia Industriala I.

Batzilergo Humanistikoa eta Gizarte Zientziak: Latina I eta Matematika Gizarte Zientzietarako ezarrita geratzen dira. Hirugarren ikasgaia bikoizketa bat da Historia Garaikidea edo Grekeraren artean.

Hautazkoak: Derrigorrezko eskaintzaren artean lehentasunezko ordenaren arabera aukeratu behar dira (Euskal Herriko Historia, Informazio eta Komunikazioen Teknologiak eta Frantsesa), aurreko atalean aukeratu ez dituztenen arteko modalitatekoak (Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa I, Historia Garaikidea, Grekera I) eta Ahozko Komunikazioa Ingelesean, Psikologia eta Laborategi Teknikak.

DBH 4. mailako familiekin bilera bat egiten da prozedura azaltzeko eta ikasleei galdetegia ematen zaie.

Boto gehien izan dituzten ikasgaiak eta ikastetxeak izan ahal duen ordu kreditua kontuan izanik aurre-matrikularen eskaintza osatzen da.

Aukeraketa prozesua behar den guztietan errepikatzen da, eskaintza koherentea lortu arte eta ikasleak ikasi nahi duen ibilbideetara gehien hurbiltzen dena lortu arte.

Sartu berri diren ikasleei DBH 4. mailako ikasleek erakutsi dituzten lehentasunen arabera galdetegia eskaintzen zaie.

Planifikatutako negoziazio prozesuan ikasgaiaren bat desagertuko balitz edo beste ikasgai baterako besteren bat eskaini ahal izango balitz, ikasleak adierazitako lehentasunen arabera kokatuko lirateke.

2014-2015eko ikasturtean ematen diren ikasgaiak honako hauek dira:

1. Batxilergo Zientifiko eta Teknologikoa: Matematika I, Fisika-Kimika, bikoizketa bat hurrengoan artean Biologia-Geologia eta Marrazketa Teknikoa I.
1. Batxilergo Humanistikoa eta Gizarte Zientziak: Latina I, Gizarte Zientzietarako Matematika I eta Historia Garaikidea.

Hautazko ikasgai gisa: Informatika, Ahozko Komunikazioa Ingelesean eta Psikologia.

### 10.2.2.3.- Batxilergoko 2. mailako ikasleak

Martxoan zuzendaritzak Hezkuntza Sailak ezartzen dituen eskakizunekin orientazio-txantiloia eta institutuak diseinatutako eskaintza prestatzen du. Familiek eta ikasleek eskema honi jarraituz aukeraketa egiten dute:

Batzilergo Zientifiko eta Teknologikoa: Matematika II ezarria. Bigarrena bikoizketa izango da Fisika eta Biologia artean. Hirugarrena bikoizketa izango da hurrengoan artean: Kimika, Lur eta ingurugiroko Zientziak, Marrazketa Teknikoa II edo Teknologia Industriala II.

Batzilergo Humanistikoa eta Gizarte Zientziak: Lehenengoa bikoizketa izango da hurrengoan artean Latina II eta Gizarte Zientzietarako Matematika II. Bigarrena eta hirugarrena lehentasun ordenaren arabera aukeratu behar dira hurrengoan artean: Geografia, Literatura Unibertsala eta Artearen Historia.

Hautazkoa: 1. mailan ikasi ez dituzten derrigorrezkoen artean lehentasunaren arabera aukeratuko dute, aurreko atalean aukeratu ez dituzten modalitatekoak (Kimika, Lur eta Ingurugiroko Zientziak, Marrazketa Teknikoa II edo Teknologia Industrialak II) eta Anatomia eta GEAO.

Familiekin bilera bat egiten da prozedura azaltzeko. Batxilergo 1. mailako ikasleei galdetegia ematen zaie.

Boto gehien izan dituzten ikasgaiak eta ikastetxeak izan ahal duen ordu kreditua kontuan izanik aurre-matrikularen eskaintza osatzen da.

Aukeraketa prozesua behar den guztietan errepikatzen da, eskaintza koherentea lortu arte eta ikasleak ikasi nahi duen ibilbideetara gehien hurbiltzen dena lortu arte.

Planifikatutako negoziazio prozesuan ikasgairik bat desagertuko balitz edo beste ikasgai baterako besteren bat eskaini ahal izango balitz, ikasleak adierazitako lehentasunen arabera kokatuko lirarteke.

2014-2015eko ikasturtean ematen diren ikasgaiak honako hauek dira:

2. Batxilergo Zientifiko eta Teknologikoa: Matematika II, Kimika eta bikoizketa bat Fisika eta Biologiaren artean.

2. Batxilergo Humanistikoa eta Gizarte Zientziak: Geografia, Literatura Unibertsala eta Latina II.

Ikasgai hautazko gisa: Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak eta GEAO.

#### 10.2.2.4.- Heziketa Zikloetako ikasleak

Hautazkotasunik ez dago, curriculumak itxita dagoelako eta ikasle guztientzat berbera delako.

#### 10.2.3.- HEZKUNTZA INDARTZEA

Hezkuntza Errefortzu gisa ulertzen dugu ikasle talde jakin batean parte hartzen duten irakasleen arteko ekintza koordinatua, ohiko irakaskuntzan, eta ikaskuntza zailtasunak gainditzen laguntzeko helburu duena.

Hezkuntza errefortzua kontuan hartzea da ikaslea zein puntutan dagoen eta hortik aurrera garapen ona lortzeko gutxienez zer behar duen zehaztea eta hori lortzeko zelan hobetu ahal diren ikas-irakas prozesuak.

#### 10.2.4.- HEZKUNTZA INDARTZEKO TALDEKO NEURRIAK

##### 10.2.4.1.- Bikoizketak arlo batzuetan

Taldean konfigurazioari buruzko emaitzaren aplikazioan ateratzen den ordu kreditua DBH 1. eta 2. mailako taldeetan aprobetxatzen da, DBH 1. mailan talde heterogeneoak osatzeko. Neurri honek arlo instrumentaletan arreta pertsonalizatuagoa eskaintzea du helburu. Dauden orduen arabera bikoizketa egingo da Euskarari, Gaztelan eta Matematikan. Ordu nahiko egongo balitz Ingelesean ere egingo litzateke.

Prozedura: Ikasturte hasieran, erreferentziako ikastetxeetatik jasotako informazioak kontuan izanik, irakasleak batu egiten dira, talde bakoitzeko behar diren ikasleak aipatzen dira talde heterogeneoak osatzeko. Taldeak osatzeko baldintzak hauek dira: neska eta mutilen arteko kopurua orekatzea; gaitasun, ahalmen eta jarrerak kontuan izanik oreka lortzea, errepikatzaileak orekaz banatzea eta CNE ikasleak euren erreferentzia taldean uztea.

Taldean konfigurazioari buruzko emaitza aplikatzean DBH 3. eta 4. mailan ordu kreditu nahikorik egongo balitz bikoizketako talde heterogeneoak egiteko, DBH 3. mailan egingo lirarteke, 1.

mailan egiten den prozedura berberari jarraituz. Horretaz gainera, eta bi mailetako kreditu osoaren arabera, 4. mailan bikoizketaren bat egitea baloratu egingo da.

#### 10.2.4.2.- Bi irakasle gela-talde batekin

Pedagogia Terapeutikoko irakasleek ohiko gela barruan lan egiten dute eta, premia bereziko ikasleari laguntzeaz gain, beste ikasleei zailtasunak gainditzen laguntzen ere.

HBSP proiektuan azaltzen denez, ikasgai batzuetan gelan irakasle bi daude.

2014-2015eko ikasturtean Pedagogia Terapeutikoko irakasle bi ditugu jardun osoan eta beste bat jardun erdian, eta euren artean hezkuntza premia bereziko 23 ikasleri erantzuna emanez.

#### 10.2.4.3.- Lankidetzako ikaskuntza

Irakasle eta arloaren araberrako talde ekintzak dira, berdinen arteko irakaskuntza bultzatuz, ikasitakoa finkatuz eta beste batzuei dituzten zailtasunak gainditzen lagunduz.

2014-2015eko ikasturtean talde interaktiboak eta tertulia literarioak egitea programatuta dago.

#### 10.2.4.4.- Helburu espezifikoak dituzten ekintzak

Ikasle guztien integrazioa eta taldearen elkarbizitza hobetzea. Tutoretza saioetan ekintza ezberdinak programatzen dira gelako giroa hobetzeko, ikasle guztien integrazioa lortzeko eta euren arteko harremanak sustatzeko. Ekintza hauek Tutoretza Ekintza Planean bilduta daude.

Lan egiteko eta ikasteko tekniken ikaskuntza. Arloetan ikasteko teknikak lantzen dira: azpimarratzea, eskemak, laburpenak,... Tutoretza saioetan norbanakoaren agendaren erabilera finkatzen da. Agenda honek ere balio du ikastetxetik kanpoko ikaste-denbora antolatzeke. Ekintza hauek guztiak Tutoretza Ekintza Planean bilduta daude.

Ikasleen arteko gatazken konponbidean "ikasle laguntzaileek" parte hartzen dute, honek gelako giroa eta taldeko integrazioa hobetzen du. Esku-hartze modua Bitartekaritza eta "ikasle laguntzaileen" proiektuetan bilduta dago.

#### 10.2.5.- BANAKAKO HEZKUNTZA INDARTZE NEURRIAK (HIBP)

Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBP) dokumentu bat da, ikasle jakin baten laguntza-premiei erantzuteko aurreikusten diren errefortzu-jarduerak jasotzen dituena.

Egoera hauetakoren batean dagoen ikaslearentzat egin behar da: Hurrengo mailara igarotzen ez denarentzat, aurreko mailetako irakasgairen bat gainditu gabe duenarentzat, arlo instrumental batean edo gehiagotan ikasteko zailtasunak dituenarentzat, ezohiko arazoak direla medio. Beste programa espezifiko batean sartuta dagoenean (Curriculum Anitzekoa, HBSP, HIPI, etab.) ez du HIBP egin beharrik izango.

HIBPren helburua bikoitza da: Ikasleak oinarrizko hezkuntzako helburuak lortzen dituela sustatzea, eta, horretarako, laguntza guztia ematea oinarrizko gaitasunen maila egokiak lortzeko eta irakasleek era koordinatua esku har dezaten plangintza egitea, eta familien lankidetzaren segurtatzea, ikasle bakoitzaren laguntza-premiei erantzuteko.

Honetara, berez, bideratuko da laguntza:

- Ikasteko zailtasunak dituen ikasleari oinarrizko teknika instrumentalak irakastera.
- Ikasleen garapen integralean laguntzera, eremu guztietan: pertsonalean, sozialean eta akademikoan.

- Ikasleengan ikastearen aldeko jarrera positiboa eta aktiboa eragitera, arrakasta akademikoko esperientziak sustatuz.
- Antolatzeko eta lanean saiatzeko ohiturak sustatzera.
- Ikasleen pertsona-, eskola- eta gizarte-autoestimua indartzera.
- Familiak inplikatzera, seme-alaben ikasketak hobetzeko.

### HIBPren prestaketa

- 1.-Azken ebaluazio-saioan irakasle-taldeak, tutoreak koordinatuta, erabakiko du ikasleak mailaz pasatu behar duen ala ez.

DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasle guztientzat IKASTURTEKO AZKEN EBALUAZIOKO TXOSTEN INDIBIDUALA (EB23) prestatuko dute. DBHko 4. mailako ikasle guztientzat KONTSEILU ORIENTATZAILEA (EB34) prestatuko dute. Bi txosten hauek familiei emango zaizkie azken nota-buletinarekin batera. Kopia bat ikaslearen karpeta pertsonalean geratuko da gordeta.

- 2.-Ikasleak maila berean beste urtebetez jarraitu behar duela edo arlo/irakasgai jakin batzuk gainditu gabe mailaz igo behar duela erabakitzen bada, irakasle-taldeak, tutoreak koordinatuta eta orientatzaileak aholkatuta, baloratuko du azken ebaluazio-saioan zergatik hori erabaki duen, informazio garrantzitsua jasoko du (curriculum-maila, antzemandako premiak, egoki irizten dituzten oharrak ikasleak ikasketak arrakastaz egin ditzan, etab.) eta HIBPren lehenengo zatia egingo du, IKASTURTE AMAIERAKO TXOSTENA (EB31, 1., 2., 3. eta 4. atalak) izenekoa. Eredu pertsonalean, eremu sozialean, familiaren eremuan eta curriculumaren eremuan hezkuntza-errefortzua behar duten eremuei garrantzia handia emango zaie (HEZKUNTZA-ERREFORTZURAKO EREMUAK EB36). Txostenaren emaitzak familiari jakinaraziko diogu baina sekulan ez diogu txosten hau emango, ikaslearen karpeta pertsonalean geratuko da gordeta.

Era berean, ikasleak gainditu ez duen irakasgai bakoitzari dagokion irakaslearen departamentuak, tutoreak koordinatuta eta orientatzaileak aholkatuta, irakasgai bakoitzaren curriculumaren eremuko errefortzua diseinatuko du. Ikasle bakoitzak gainditu ez dituzten irakasgai guztientzako errefortzuak HIBPn gaineratuko dira (EB31, 5. atala).

- 3.-Hurrengo ikasturtearen hasieran irakasle talde berriak, tutoreak koordinatuta eta orientatzaileak aholkatuta, HIBP zehaztuko du aurreko ikasturteko irakasle taldeak utzitako informazioaz baliatuz (EB31, 6. atala).
- 4.-Ikasturte hasiera honetan, tutoreak, edo irakasgaiaren irakasleak hala ikustekotan, elkarriketa bat egingo du ikaslearekin eta familiarekin, finkatutako planaren berri emateko eta idatziz jasotzeko lankidetzakonpromisoak (FAMILIAREKIN LAN EGITEKO KONPROMISOA EB32 eta IKASLEAREKIKO HEZKUNTZA-KONTRATUA EB33).
- 5.-Taldeen aritzen den irakasle guztiek ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonala egingo dute, planifikatutako ekintzak eraginkorrak diren ala ez egiaztatzeko. Irakasle taldeak, tutoreak koordinatuta, norbanako planaren betetze-mailari jarraipena egingo dio eta aurrerapausoak baloratu ditu, egokitzen jotzen diren aldaketak sartuz (EB31, 7. atala).
- 6.-Irakasle-taldeak, tutoreak koordinatuta eta orientatzaileak eta ikasketak buruak aholkatuta, HIBPko azken ebaluazioa egingo du gainditu gabeko irakasgaien azken ebaluazio saioan. Dokumentu guztiak ikaslearen karpeta pertsonalean geratuko dira gordeta

2014-2015eko ikasturtean HIBP duten ikasle kopurua:

	DBH			DBHO		
	2.	3.	4.	2. BACH.	2. IL	2. GEKEAT
Ikasle kopurua	36	16	14	10	3	3
Ikasgai ez gaindituen kopurua	91	37	24	14	3	3

#### 10.2.5.1.- Gelan egiteko indartze ekintzak

Irakasle bakoitzak arloko programazioan gelan egin beharreko ariketak islatuko ditu, bai errefortzurako baita sakontzeko ere.

Irakasleek Departamentu-bileran edo euren ekin programatzeko orduan ekintza mota eta zelan egingo diren planteatuko dute. Ekintzak izan daitezke: edukiak sakontzeko maila ezberdinak jartzea, baliabide eta estrategia metodologikoen aukeraketa, curriculumeko materiala egokitzea, estrategiak dibertsifikatzea, ikaskuntzen ebaluaziorako ekintzak eta tresnak, errekuperazio ariketak,...

#### 10.2.5.2.- Liburutegia

Ikastetxearen liburutegia atsedenaldi guztietan zabalik dago 10:45etik 11:15era, astean zehar saio batzuetan ere zabalik dago. Irakasleak informazio eta irakurtzeko liburu bila joan daitezke. Atsedenaldietan zabalik egotean, zenbait ikaslek azterketarako ikasteko eta etxeko lanak egiteko aprobetxatzen du. Irakasleak ikasleekin ere joan daitezke programatutako gelako jardueren barruan.

#### 10.2.5.3.- Berdinen arteko tutoretza

Tutoreak, TEP (PAT) programazioaren barruan, eta tutoretza edo HEAREko ordua aprobetxatuz, berdinen arteko irakaskuntzarako guneak errazten ditu, bertan ikasleek elkarri laguntzen diote ikaskuntza prozesuan, elkarrekin jarduerak eginez, esaterako, informazioa bilatuz, irakurketa partekatua eginez,...

#### 10.2.5.4.- Tutoretza indartzea

Ikasleen jarraipen pertsonalizatuena aldizkako tutoretza saioen bitartez egiten da, ikasle bakoitzaren ebaluazioan ikusten diren beharren arabera. TEPn azaltzen den bezalaxe tutorea da arduraduna, honek irakasle guztien kolaborazioa izan behar du eta, bereziki, PTarena, errefortzuzko proiektuaren irakasleak (HBSP, CA eta HIP) eta orientatzailea.

#### 10.2.5.5.- Hezkuntza arreta ez erlijiosoa (HEAR)

Saio hauetan ikasleek asteko ikaskuntzak indartzeko gunea dute, etxeko lanak egiteko, irakurmena eta idazmena finkatzeko,.... Ikasgai pendienteak dituzten ikasleek euren HIBPn proposatutako jardueran egin ahal izango ditu.

### 10.3.- EZ OHIKO NEURRIAK DBHN

#### 10.3.1.- URTEBETE GEHIAGO EGOTEA KURTZO BATEAN

DBH ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa jarraitua eta integratzailea da. Ikasle batek hiru ikasgai edo gehiagotan programatutako helburuak lortzen ez dituenean, kurtso horretan urte bat gehiago eman behar du, etapa osoan neurri hori behin baino ezin izango dela aplikatu kontuan izanik. Hala ere, ikasle batek Lehen Hezkuntzan ez badu errepikatu, orduan bigarren aldiz errepikatu ahal izango zuen.

Salbuespen gisa irakasle taldeak hiru ikasgai gainditu barik ikaslea promozionatzea erabaki dezake, ikaslearen ibilbiderako egoki ikusten bada.

Ikasle bat hurrengo kurtsorako promozionatua ez denean, beharrezko neurriak hartuko dira, ez ohiko neurri hau ondo aprobetxatzeko, Hezkuntza Indartze Banakako Plana eginez (HIBP).

2014-2015eko ikasturtean errepikatzaileen kopurua honako hau da:

	DBH				BATXILERGOA		IL		GEKEAT	
	1.	2.	3.	4.	1.	2.	1.	2.	1.	2.
Ikasle kopurua	5	8	10	3	2	9	5	0	3	2

### 10.3.2.- ERREPIKAPEN BEREZIA

Lehen Hezkuntza eta DBHn zehar errepikatzeko aukera biak agortuz gero, irakasleek eskatuta eta familiaren onarpenarekin Ikuskaritzari eskatuko zaio hirugarren errepikapena (ez ohikoa) egiteko.

2014-15eko ikasturtean ez dago egoera honetan dagoen ikaslerik.

### 10.3.3.- DBHN ESKOLATZE-DENBORA URTEBETEZ MURRIZTEA

DBHn eskolatze-denbora urtebetez murriztu ahal izango da, horretarako ebaluazio psikopedagogiakoak egiaztatu behar du ikaslearen sobredotazio intelektuala eta neurri hori berarentzat egokia dela bere oreka pertsonalaren garapenerako, gizarteratzeko eta oro har, zikloko edo dagokion kurtsoko helburuak barneratuta dituela.

2014-2015eko ikasturtearen antolakuntzari buruzko Ebazpenak dioten bezala, ikastetxearen Zuzendaritzak, DBH kurtsoa hasi aurretik, Hezkuntza Berriztapen Lurraldeko Burutzari bidali beharko dio eskolatze-denbora murriztearen proposamena.

2014-2015eko ikasturtean ez dago egoera honetan dagoen ikaslerik.

### 10.3.4.- CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPENAK (CNE)

Curriculum egokitzapenen funtziorik garrantzitsuenak:

- Hezkuntza premia bereziko ikasle bati eskainiko zaion hezkuntza erantzuna zehaztea, argi eta garbi azaldu behar da jarraituko den irakas-ikas prozesuaren sekuentzia zein izango den.
- Ikaslearen hezkuntza beharrei erantzuteko beharrezko neurriak har daitezzen mailako antolakuntzatik ahalbidetzea.
- Hezkuntza ekintzan parte hartzen duten profesional ezberdinen arreta koordinatua antolatzea (Arloko irakaslea, tutoreak, AEA, PT, irakasle itineranteak, Orientatzailea,...)
- Baliabide konkretuen beharra zehaztea eta justifikatzea, giza-baliabideak zein materialak, beharrezkoak izango diren denbora eta xedea zehaztuz.
- Irakas-ikaskuntza prozesuaren ebaluaziorako erreferente gisa balio izatea.

#### 10.3.4.1.- Curriculumeko sarbiderako egokitzapena

Curriculumeko sarbiderako egokitzapenak dira urritasunengatik sortzen direnak, hezkuntza sistemaren ohiko baliabideez ikasleek etekina atera ezin dutenean, ikaskuntzari heldu ahal izateko laguntza teknikoak erabiliz.

Laguntza teknikoek ohiko curriculum edo egokitutakoa garatzen lagunduko dute, ikasleen ezaugarrien arabera eta eman behar duten erantzunaren arabera beharren motak bezain ezberdinak izan daitezkeelarik: ahozko hizkuntza ez diren komunikazio bitartekari alternatiboak,

estimulu bisualak entzumenezko bihurtuz, komunikazioa handitzeko sistemak ahozkoa nahiko ulergarria ez denean, lekuzko baliabideen aldaketa,...

Ikastetxeak hezkuntza premia bereziko ikasleei, minusbaliotasunagatik edo ikaskuntzako zailtasun espezifikoengatik, behar dituzten baliabide edo tresna teknologikoak emango dizkie.

Baliabide espezifiko hauek ikastetxeak Berritzegunearen bitartez eskatuko ditu, eta honek Hezkuntzako Berritzapen Lurraldeko Burutzari eskualdeko beharren berri emango dio.

Ikastetxeko Zuzendaritzak Berritzeguneari hezkuntza premia berezia duten ikasleen baliabide zehatzen proposamena bidaliko dio, ikasturtearen antolakuntzari buruzko Ebazpenean bildutako Ikuskaritzaren argibideek dioten bezala.

2014-15eko ikasturtean egoera honetan 9 ikasle daude.

#### 10.3.4.2.- Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak

Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak ez ohiko neurriak dira, hauek direla eta curriculumeko elementu preskriptiboetan aldaketa garrantzitsuak sartzen dira, etapa edo arloko helburuen zati bat aldatuz edota kenduz.

Curriculumaren egokitzapen esanguratsuek egoera biri egin ahal diote erreferentzia.

1. Arloko curriculumaren egokitzapena: Arlo jakin bateko helburuak ordezkatu, aldatu edo ezabatzen direneko CNE da. Neurri hauek guztiek, arlo bateko curriculumaren egokitzapena eskatzen dutenek, etapako helburu berberak izaten jarraitzen dute eta ikasleek Bigarren Hezkuntzako Titulua lortzeko aukera izatea lortu nahi dute neurri hauek.

2014-15eko ikasturtean egoera honetan 9 ikasle daude.

2. Curriculumaren egokitzapen globala: Arlo 2 baino gehiagoko helburuetan eragina duen CNE da. Hauek euren garapenaren alor eta arlo batzuetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei zuzenduta daude. Ohikoena izaten da ikasle hauek aldeztatik Lehen Hezkuntzan CNE izatea; baina baliteke Lehen Hezkuntzan laguntzak eta curriculumaren egokitzapen gutxi esanguratsuak izatea eta DBHn egokitzapen esanguratsua egitea beharrezko ikustea.

Oro har ikasle hauek adimen-minusbaliotasunak edo urritasunak izaten dituzte, hauek ikaskuntza prozesuan eta euren garapen kognitibo eta sozialean eragina dute. Kasu batzuetan gaitasunen urritasuna elbarritasun fisiko edota sensorialarekin batera joan daiteke, eta horrek curriculumeko sarbiderako egokitzapenak ere eskatu ahal ditu.

Orokorrean, ikasle hauek etapako titulazioa ezin izango zuten lortu, eta Curriculum Garapenerako Dekretuak dioenez, 16 urtetik aurrera ekintza formatiboak zehaztu beharko liriteke, helduen munduan eta laborean sartzeko gaitasuna emango lieketenak.

2014-15eko ikasturtean egoera honetan 5 ikasle daude.

CNE egiteko kontuan hartzen dugu:

1. Ebaluazio Psikopedagogikotik abiatzea.
2. Ohiko curriculumaren erreferentzia gisa hartzea.
3. Egokitzapenak planteamendu komunitatik ikasleak ahalik eta gutxien aldentzen saiatzea.
4. Curriculumaren Norbanako Egokitzapenaren Dokumentuan hartutako erabakiak idatziz erregistratzea.

Jarraitzen dugun prozedura honako hau da:

1. Tutoreak edo beste irakasleek hezkuntza premiak detektatzea, aurreko egokitzapenen txostenak kontuan izanik.

Behaketari esker lortzen da, aldez aurreko informazioak eta ikaslearen garapenaren jarraipena, aurretik hartutako neurrien bitartez eta aurreko egokitzapen esanguratsu edo ez-esanguratsuen bitartez.

Egokitzapen hauek egiteko, tutoreak edo arloko irakasleak laguntza irakasleei edota orientatzaileari laguntza ematen dio.

Beharrezkoa denean, aldez aurretiko ebaluazio psikopedagogiakorik ez dagoelako, familiari baimena eskatuz, orientatzaileak Berritzeguneko aholkulariari eskatuko dio.

Irakasleek ebaluazio psikopedagogiakoari ikaslearen gainerako datuak erantsiko dizkio, proposatzen den egokitzapenaren gainerako arloa edo arloak zehaztuz, aipatutako arloetan gaitasun curricularraren gainerako mailaren bilketa, analisia eta balorazioa; ikaskuntzaren estiloa, ohiturak eta jarrerak; eta irakas-ikaskuntza prozesua aurrera eramaten den eskolako testuinguruari buruzko datuak hurrengo puntuei dagokienez: gelako programazioan egindako egokitze ez-esanguratsuak, aspektu metodologikoak, helburuak eta edukiak, jasotzen dituen laguntzak eta bere helburuak, ikaslearen integrazioa taldean, taldearekiko harremanak,...

Tutoreak familiaren egoerari buruzko informazioa ere gehituko du, baita mugitzen den testuinguru soziala eta garapenaren informazioa ere.

2. Ikasleak hezkuntza premia berezi iraunkorrak dituela zehazten bada, aholkulariak eta orientatzaileak familiari ebaluazioaren emaitzak jakinaraziko dizkie, legeak ezarritako arreta neurrien berri emango zaie eta, euren adostasuna eskatuko zaie ikasleak bere eskolaritatea Curriculumaren Egokitzapen Esanguratsuekin ikas dezan.
3. Orientatzaileak laguntza taldeari ebaluazio psikopedagogiakoaren ondorioak jakinaraziko dizkio eta laguntza antolatuko da. Ikaslearen laguntza irakaslea tutore eta irakasleekin bilduko da, informazio hau emateko eta bideak (denbora eta lekuak) ezartzeko, Curriculumaren Egokitzapena burutzeko.
4. Laguntza irakasleak ikasle batez lehen aldiz arduratzen diren bakoitzean, orientatzaileak ikaslearen ezaugarriak jakinaraziko dizkio, baita bere hezkuntza premia zeintzuk diren ere, honek tutore eta irakasleei informazio hau eman ahal izateko.
5. Curriculumaren egokitzapena tutoreak edo dagokion arloko tutoreak egingo du irakasle espezialisten laguntzarekin, PTarekin, ... eta orientatzailearekin, beharrezkoa izango balitz.
6. Curriculumaren Egokitzapenaren Garapena.

CNEn idatzitako adostasuen arabera, tutore, dagokion irakasle eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleen ardurak izango da Curriculumaren Egokitzapenaren aplikazioa eta betetzea.

Laguntzako irakasle eta dagokion arloko irakasleen arteko ebaluazioa jarraitua, formatiboa eta sistematikoa egingo da.

7. Ebaluazio ezberdinen emaitzak eta CNE duten arloetan lortutako kalifikazioak dokumentu espezifikoan islatuko dira, arloko irakaslearekin eta PTarekin aldez aurretik adostuta. CNE barik ikasten dituzten ikasgaietan nota islatuko da familientzako informazio buletinean, ikastetxeko beste ikasleen kasuetan bezala.
8. Kurtso bakoitzaren amaieran tutore, irakasle talde eta laguntza irakasleek ikaslearen ebaluazioa egingo dute eta promozionatzeko erabakiak hartuko dituzte.



### 10.3.5.- HIZKUNTZA INDARTZE PROGRAMA (HIP)

Hizkuntza Indartze Programan proposatzen diren helburuak honako hauek dira:

1. Ikasle etorkinei, euskaraz ez dakitenei, arreta berezia ahalbidetzea, gaitasun linguistiko eta komunikatiboen lorpenean lagunduz eta curriculumaren egokitze jakinen bitartez irakasikaskuntza prozesua garatuz.
2. Euskal hezkuntza sisteman ikasle hauen sarbidea erraztea, ahalik eta lasterren eta baldintza onenetan eskolako testuinguruan integratzea lortuz.

Hizkuntza Indartze Programaren hartzaileak DBHko ikasle etorkinak dira, sartu berri direnak eta euskaraz ez dakitenak. Era berean, lekualdatzeagatik beste eredu linguistiko batetik datozen ikasleak eta D ereduan sartzen direnak ere Programa honen hartzaileak izan daitezke.

Urteko deialdian prozedura zehaztuta azaltzen da, nortzuk har dezaketen parte eta zelan sartu ahal diren programan.

Hizkuntza Indartzearen arduradunak ikastetxearen Zuzendaritzaren laguntzaz proiektua egiten du.

2014-2015eko ikasturtean Hizkuntza Indartze Programaren arduradunik ez dago, ezta ikaslerik programa barruan ere.

### 10.3.6.- HEZKUNTZA BERARIAZ SENDOTZEKO PROIEKTUA (HBSP)

Indartze neurri hau DBH lehen edota bigarren mailetako ikasleentzat egina dago, ikasle hauek egoera sozial edo kultural gutxietsietan daude, eskolan egokitzeko zailtasun larriak dituzte eta eskolan egokitzeko arazoak dituzte, askotan ikasteko atzerapenak izanik. Programa ohiko lekuetan eta inklusibitatea kontuan hartuz garatuko da.

Gure ikastetxean indartze neurri hau DBH bigarren mailan erabiltzen da.

HBSPn sartzeko prozedura:

1. DBHko 1. eta 2. mailetako 2. ebaluazioa amaitu eta gero, Orientazio Sailaren aholkularitzarekin irakasle taldeak programan zehaztutako ezaugarriak dituzten ikasleen lehengo identifikazioa egiten du.
2. Maiatzeko aurre-ebaluazioan tutoreak eta irakasle taldeak proposatutako ikasleak begiratuko dituzte eta Orientazio Sailarekin bat ebaluazio akademiko eta psikopedagogiako egokia egingo dute.
3. Ekainean, ez ohiko ebaluazioa behin eginda, irakasle taldeak txosten batekin proposamen konkretua egingo du eta tutoreak, orientatzailearekin batera, ikasleari berari eta bere familiari programa honetan sartzeko proposamenaren berri emango die.
4. Deialdiaren baldintzak betez gero, jarritako epeak kontuan hartuz eskatu egingo da.
5. Irailean ikasleen eta familien konpromisoak sinatuko dira eta behin betiko zerrenda Delegaritzara bidaliko da.

2014-2015eko ikasturtean programa honen barruan DBH 2. mailako 8 ikasle daude. Aurrera eramateko pertsona batentzako kreditu ordua dugu jardunaldi erdiarekin. Irakasleak 2D eta 2G taldeetan euskara saioetan laguntzen du. Ezohiko talde bat osatu da ikasturte honetan 2. mailako kreditu-orduekin Matematika saioetan HBSPko ikasleak laguntzeko. Horretaz gain, irakasle biek talde bakoitzeko HEAR saio batean esku-hartzen dute.

### 10.3.7.- CURRICULUM ANITZEKO PROGRAMA (CA)

Curriculum Anitzeko Programa DBH 3. eta 4. mailetakoko ikasleentzat prestatuta dauden indartze neurria da, ikasle hauek, nahiz eta eskolan ondo egokituta egon, ikasteko zailtasunak dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko begira dago. Horretarako programa honetako ikasleek, gutxienez, 18 ordu emango dituzte arlo soziolinguistiko eta zientifiko-teknologikoan.

Programan sartzeko prozedura:

1. DBHko 2., 3. eta 4. mailetakoko 2. ebaluazioa amaitzean, irakasle taldeak, Orientazio Saileko aholkularitzarekin, programan zehaztutako ezaugarriak dituzten ikasleen lehenengo identifikazioa egiten du.
2. Maiatzeko aurre-ebaluazioan tutoreak eta irakasle taldeak proposatutako ikasleak begiratu dituzte eta Orientazio Sailari ebaluazio akademiko eta psikopedagogikoa eskatu dio.
3. Ekainean, ez ohiko ebaluazioa behin eginda, irakasle taldeak txosten batekin proposamen konkretua egingo du eta tutoreak, orientatzailearekin batera, ikasleari berari eta bere familiari programa honetan sartzeko proposamenaren berri emango die.
4. Deialdiaren baldintzak betez gero, jarritako epeak kontuan hartuz eskatu egingo da.
5. Irailean ikasleen eta familien konpromisoak sinatuko dira eta behin betiko zerrenda Delegaziora bidaliko da.

2014-2015eko ikasturtean DBHko 3. mailarako talde bat eskatu genuen baina ez ziguten eman.

### 10.3.8.- IJITO IKASLEEI BERARIAZKO ARRETA

Hezkuntza Sailak bultzatutako programa da, ijito ikasleen ikas-irakaskuntza prozesua egokitze. Ikastetxeari esleitutako erakundeko langile bat astero etortzen da, ikasleekin banakako tutoretzak egiteko, familiekiko harremanak kudeatzeko eta ikasketa burutza eta irakasleekin esku-hartzea koordinatzeko.

Proiektu honen helburuak honako hauek dira:

- Ikasleak ikastetxera maiztasunez joatea.
- Jarrera eta portaera egokiak izatea.
- Irakas-ikaskuntza prozesuaren probetxu minimoa ateratzea.
- Eskolarizatu erregulartasunez ahalik eta denbora gehien jarraitzea, eta posiblea izango balitz, dagokion titulazioa lortuz.

Ikastetxera doan arduradunak ikasketa burutza, tutore eta etapako koordinatzailearekin koordinazio saioak ditu, egin behar diren ekintzak erabakitze eta martxan jartzeko.

2014-15eko ikasturtean ikastetxeko 8 ikasleek berariazko arreta jasotzen dute.

### 10.3.9.- ESKOLA-ABSENTISMO PROGRAMA

2014-2015eko ikasturtearen antolakuntzari buruzko Ebazpenean eta Hezkuntza Sailak egindako protokoloan bilduta agertzen dira gure ikastetxean eskola-absentismoaren jarraipen eta kontrolerako garatzen diren neurriak. Aipatutako dokumentuetan eskola-absentismoaren prebentzio, esku-hartze eta jarraipenerako irizpideak eta prozedurak ezartzen dira.

Prozedura: Irakasleek eguneroko asistentzia kontrola eramango dute. Absentismo egoera bat igartzen denean, tutoreak informazioa bilatuko du eta absentismoa egotekotan berehala jakinaraziko

dio familiari eta Zuzendaritza Taldea jakinaren gainean jarriko du. Izan ere, Zuzendaritza Taldeak inplikaturako beste instituzio guztiei informazioa emango die.

Absentismoa murrizten ez bada, familiari ordua ematen zaio elkarrizketa baterako eta ezarritako protokoloarekin jarraitzen da.

### **10.3.10.- ETXeko ASISTENTZIA PROGRAMA**

Etxeko laguntza izendatutako irakasleek burutuko dute ikasleen etxeetan, ikasle hauek medikuaren aginduz ezin dira ikastetxeetara joan. Prozedura 2014-2015eko ikasturtearen antolakuntzari buruzko Ebazpenean azaltzen da.

Ekimen hau ezin da aurreikusi, eskaera puntualen arabera burutzen delako.

### **10.3.11.- ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK**

#### **10.3.11.1.- Eskolatzeko osagarria**

Eskolatzeko Osagarriko Programak ikasle jakin batzuentzat bakarrik dira. Ikasle hauek giza-egoera oso zailean daude edo eskolako inguruari egokitzeko zailtasun handiak dituzte. Hori horrela, eta baldintzak aldatzen ez diren bitartean, ezinezkoa da hezkuntza prozesu normalizatua eramatea.

Ikasleak, Eskolatzeko Osagarriko Programetan sartzen direnak, ikasturte hasieran hamasei urte baino gutxiago izan behar du eta hamalau urte baino gehiago, ez da kontuan hartzen zein mailatan dagoen eskolarizatuta.

Ikastetxearen txostena Hezkuntzako Ikuskaritzaren Oniritziarekin derrigorrezkoa da, bertan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ohiko erregulazioan azaltzen diren aniztasunari arreta emateko markoan hartutako aurretiko neurrien ebaluazioa azaltzen da.

Jarraitu beharreko prozedura:

1. Eskolarizatuta dagoen ikastetxearen irakasle taldea bilduko da ikastetxeko Orientatzailearen eta laguntza zerbitzuen aholkularitzaren parte hartzearekin batera. Hezkuntza Ikuskaritzaren kolaborazioa eta iritzia eskatu ahal izango da eta, beharrezkoa izango balitz, eskualdeko zerbitzu sozialena ere bai. Irakasle taldeak txostena egingo du, bertan Eskolatzeko Osagarriko Programan parte hartzeko ikaslearen proposamena egoki egiten duten baldintzak adierazten dira. Txosten horretan ikastetxean aurretik hartutako neurrien emaitzak zehaztu eta ebaluatuko dira. Era berean, txostenean curriculumaren norbanakoaren proposamena egingo da, beharrak eta lortu nahi diren helburuak zehaztuz.
2. Arduradun legalei esango zaie zelan jokatu den, euren ikuspuntua eskatuz eta ikasleari dagokionez proposatuko den neurriari buruzko informazio guztia emanez, etorkizun eskolarraren gaineko aurreikuspenaz, proposatzen den modalitateaz eta eskolarizaio normalizatura itzultzeko aukerez eta zein baldintzatan.
3. Txostenari ordezkari legalen eta ikaslearen beraren baimena erantsiko zaio.
4. Irakasle taldeak ikastetxeko Zuzendaritzari proposamen bat luzatuko dio, eta honek aztertuko du eta bere tramitazioari ekingo dio, egoki ikusten badu.

2014-15eko ikasturtean programa honetan ikasle bat dugu Ortuellako PCPlan.

#### **10.3.11.2.- Hasierako Lanbide-Prestakuntzarako Programa – 15 urte ( HLPP-15)**

Hasierako Lanbide-Prestakuntzarako Programak 16 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat dira, hauek urteak beteta izan behar dituzte programan sartzeko inskripzioa egiten duten urtearen abenduaren 31

baino lehen. Ikasle hauek ez dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortu eta, beraz, Bigarren Hezkuntzako titulua ez dute lortu.

Salbuespen gisa, eta ikaslearen, gurasoen edota tutoreen adostasunarekin, adina 15 urteetara jaitsi ahal izango litzateke. Horretarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila kurtsatu ostean, ez da egon behar 3. mailara promozionatzeko baldintzetan eta etapan behin errepikatu behar izan du.

Ikasle hauek sartzeak, ezarritako baldintza akademikoak betetzeaz gain, ikaslearen eta tutore legalen programaren onarpena eta txosten sozioedukatiboa eskatuko ditu. Txosten horretan testuinguru formatibo-edukatibo eta giza-familiarrei buruzko aspektuen ebaluazioa azalduko da, baita irakas-ikaskuntzako prozesurako orientabideak ere.

HLPPra sartutako ikasleak, 15 urtekoak barne, ez dira ikastetxeko ikasleak izango eta euren eskolarizazioa beste ikastetxe batean jarraituko dute.

2014-15eko ikasturtearen hasieran HLPP-15erako 3 ikasle proposatu ziren eta 3rak onartuak izan ziren.

### **10.3.12.- BESTE PROGRAMA BATZUK**

#### **10.3.12.1.- OSATUZ**

Programa sozioedukatiboa da ohiko eskola gunean arazo psikiatriko larriak dituzten ikasleei arreta emateko (eskizoida motako nortasuna, nortasunaren desoreka limiteak jarrera aztoratzaile larriekin, jarrera arazo larriak desoreka bipolarrei eta bulkaden deskontrolari lotuta,...) Aldez aurretik Osasun Mentaleko sistema publikoan diagnostikatuta edo ikusiak izan behar dira.

OSATUZ Programaren azken helburua euren oreka pertsonalean laguntzen dien lan pertsonalizatua egitea da, instituzio ezberdinen (Ikastetxea, Berritzegunea, Osasun Mentala,...) profesionalen ekintzak eta esku-hartzeak koordinatuz. Instituzio hauek baliabidearen onuradunaren arretan parte hartzen dute eta komunitate-eskenatoki batean (eskolako gunea, familiakoa eta gizartekoa) irizpide terapeutiko eta edukatiboak erabiltzen dituzte.

Prozedura dagokion arautegian bilduta dago.

2014-15eko ikasturtean ikasle bat daukagu programa honen barruan.

#### **10.3.12.2.- BIDERATUZ**

Eskolatze Osagarriko Programak dira DBH ikasten duten ikasleentzat, hauek osasun mentaleko arazo baten ondorioz jarrerako desoreka larriak dituzte. Ikastetxeko ikasleak dira baina ikastetxe berezi batean ikasten dute. Prozedura dagokion arautegian bilduta dago. Ikasturte honetan ez dugu ikaslerik programa honetan.

### **10.4. EZ OHIKO NEURRIAK BATXILERGOAN**

#### **10.4.1.- CURRICULUMENKO SARBIDERAKO EGOKITZAPENA**

LOEren ostean Batxilergoko curriculumaren egokitzapenak curriculumeko sarbiderako egokitzapenetara murriztu egin dira arloren batean hezkuntza premia bereziko ikasleentzat. Dena den, Batxilergoko helburuak mantentzen dira eta Hezkuntza Berriztapen Zuzendaritzaren onespenerekin salbuespen partzialak egin ahal direla onartuz.

Curriculumeko sarbiderako egokitzapenez gain, arloren batean curriculumeko egokitzapenak proposatu ahal dira, Batxilergoko helburuak mantenduz. Zenbait helburutan eta ebaluazio irizpidetan eragina izan ahal du, baina ikasten duen modalitatearen gaitasun espezifikoaren eta Batxilergoko

gaitasun orokorren lorpenaren maila bermatu behar du. Ikastetxeko Zuzendaritzak tramitatuko ditu eta aldez aurretiko Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostenaz Hezkuntzako Berriztapen Zuzendaritzak onartuko ditu.

2014-15eko ikasturtean Batxilergoko 2. Mailan ikasle bat dugu CSErekin.

#### **10.4.2.- DENBORAREN MALGUTASUNA**

Hezkuntza premia bereziko ikasleentzako neurria da, horrela Batxilerrean ohiko erregimenean 6 urtetan egon ahal dira gehienez. Prozedura dagokion arautegian bilduta dago.

Ikasturte honetan ez dugu ikaslerik egoera honetan.

#### **10.4.3.- IRAKASGAI BAT URRUTITIK EGITEA**

Batxilergoko ikasle batek, ikastetxeko eskaintzak ez badu bere beharra betetzen, beste ikastetxe batean ikasgaia egiteko aukera izan ahal du, dagokion araudian biltzen den bezalaxe (EHAA 2010/9/9)

Ikasturte honetan ez dugu ikaslerik egoera honetan.

#### **10.4.4.- ETXEKO ASISTENTZIA PROGRAMA**

Etxeke laguntza izendatutako irakasleek egingo dute ikastetxera joan ezin den ikaslearen etxean, medikuaren aginduz. Prozedura 2014-2015eko ikasturtearen antolakuntzari buruzko Ebazpenean bilduta dago.

Ekimen hau ezin da aurreikusi, eskaera puntualen arabera burutzen delako.

### **IV. BLOKEA. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

#### **11.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK ETA GURASOEKIKO ELKARLANA ETA INFORMAZIOA**

Familiei arreta ematen zaie ikastetxeko irakasle guztien asteko ordutegiaren barruan, asteko ordu bat jarritz.

Tutoreek familiekin banakako elkarrizketak izaten dituzte, kurtsuan zehar gutxienez bat. Elkarrizketen helburuak honako hauek dira:

- Garrantzia duten aspektuei buruz informazioa ematea, irakas-ikaskuntza prozesua, garapen pertsonala eta ikasleen orientabidea hobetzeko.
- Familiei hezkuntza aspektuetan aholku ematea.
- Familia eta irakasleen arteko hezkuntza lanean kooperazioa erraztea eta ematea, bai aspektu akademikoetan baita elkarbizitzaren hobekuntzakoetan ere.

Horretaz gain, ikaslea aniztasunari erantzuteko neurri bereziren baterako proposatuta denean:

- Ikasturte hasieran ikasleari, gurasoei edo tutore legalei informazioa ematen zaie, edo dagokion neurrian ikaslea sartzeko den momentuan.
- Ikastetxeak familiekin hartutako heziketa-konpromezuak emango ditu, ikasleen errendimendua hobetzeko helburuaz, baita plan eta programa hauen emaitzak hobetzeko xedeaz ere.

## 12.- JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA

Zuzendaritza taldeak orientazio sailaren laguntzaz tutoreen proposamenak bildu eta kudeatuko ditu. Proposamen hauek hezkuntza arretarako neurriren bat aplikatzeko beharrei edota ikaskuntzako zailtasunak dituzten ikasleen antzemateari buruzkoak izango dira.

Era berean, esku-hartzetarako arloak eta inplikaturako irakasleak koordinatuko ditu, erabil daitezkeen baliabideak jarriko ditu, hezkuntza premiak dituzten ikasleen banakako arretarako eta denborak antolatuko ditu.

Batzorde Pedagogikoaren Koordinazioaren asteroko bileraren bitartez eta orientatzaileak tutoreekin aldiro dituen bileren bitartez ikasleen norbanakoko arretaren jarraipena egingo da.

Ekintza ezberdinen denboralizazioa honako hau da:

1. Planaren diseinua: martxo-apirila
2. Berritzegunearekiko koordinazioa: maiatza
3. Ikuskaritzarekiko bilera informatiboa: ekaina
4. Planaren behin betiko diseinua: ekainaren amaieran
5. Irakasle taldeei informazioa eman: irailaren lehenengo astean
6. Planaren onarpena: Ikastetxearen Urteko Planarekin (IUP) batera urriaren amaieran.

AEPren jarraipena ikasturte osoan zehar egingo da hiruhilabetero. Ebaluazio saioak egin eta gero, eta alde zuzenetik EAEn aplikazioan inplikaturako ikastetxeko organoei eta profesional ezberdinei behin galdetuta, xede horrekin egindako ebaluazio-txantiloien bitartez.

Eskolako ikasturtearen azken ebaluazio saioaren ostean, hobetzeko proposamenekin egindako balorazio duen dokumentua burutzen da, eta hurrengo aspektuei egiten die erreferentzia:

- AEPren egitearen, onarpenaren eta jarraipenaren prozesuen analisia, erabakiak hartzeari begira.
- Proposatutako helburuen egokitzea edo euren betetze maila, ezarritakoak berriro zehazten, beste batzuk sartuz, edo aurretiaz dauden betetze erritmoa aldatuz.
- Garatutako neurrien balorazioa eta euren aplikazio egokia, eraginkorrak izan direnak mantentzeko proposatuz eta horren eraginkorrak izan ez direnak hobetzeko, moldatzeko edo kentzeko proposatuz.
- Hautemandako premia berriak eta aplikatu ahal diren balizko neurriak.
- Planaren eragina irakas-ikaskuntza prozesuetan, ebaluazioaren emaitzetan, Institutuaren elkarbizitzan eta ikasleen garapen pertsonal eta sozialean eragina duten beste aspektu batzuetan.
- Baliabideen ebaluazioa, bere erabileraren hobetzeko proposamenak eginez eta sortu ahal diren beharrak aurreikusiz.

## 13.- PLANAREN EBALUAZIOA

Koordinazio Pedagogikoaren Batzordeak eta Irakasleen Klaustroak hiruhilabeteko bakoitzaren amaieran AEPren jarraipena eta ebaluazioa egiten dute, neurriak analizatuz eta martxan jarri eta, beharrezkoak diren aldaketak sartuz.

Kurso amaierako ebaluazioak izango du:

- AEPren aplikazioaren jarraipen eta balorazioaren emaitza.

- Koordinazio Pedagogikoaren Batzordeak egindako balorazioa.
- Hurrengo ikasterako irakasleek egindako hobetzeko proposamenak.
- Kide anitzeko organoen eta irakasle-koordinazioaren ekarpenak.
- Hezkuntza Ikuskaritzak egindako jarraipenetik eratorritako gomendioak.

AEPren Ebaluazio prozesuaren emaitza gisa, Klaustroak planaren aplikazioari buruzko azken ondorioak ateratzen ditu, baita hobetzeko proposamenak ere, azken hauek ikastetxeko urteko memoria sartuko dira.